

**Jose Ignazio Arana**

**SAN IGNAZIO  
LOIOLAKOAREN  
BIZITZA LABURTUA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gastelaniaz*, José Ignacio Arana. Larunbe anaien moldiztegia, 1872

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=563>

**SAN IGNAZIO LOIOLAKOAREN  
BIZITZA LABURTUA  
EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ**

Bear diran baimenakin.

Bilbon.

Larunbe anaien moldiztegian.

Ronda-5

1872.

# **BAIMENA**

Vitoriako apezpikutzan. Aztertua izandu dan ezkerro nere aginduz Jesusen Lagunkidako erlijioso D, J, Ignazio Aranak izkuntza Euskarazkoan ipiñi duen LOIOLAKO SAN IGNAZIOREN BIZITZA LABURTUA, eta orobat itzaurrea eta osagarria, eta agerturik, fede eta oitura onen kontra ezer ez idukiaz gañera, bere irakurtzatik kristau leialai espirituzko protxu andi bat etorri leikeala, gere baimena molderatua izan dediñ ematen degu.

Jainkoak urte askotan gorde zaitzala. Vitorian, 1868garren urteko Otsaillaren 10an.

**Diego Mariano Apezpikoak**

San Inazio Loiolakoaren Alkartegiko A. Erretore Begiragarria

# ITZAURREA

Bi lagun asi giñaden geron agintzalleen borondatez eta askoren gogo santubak betetzeko, *San Ignazio Loiolakoaren bizitza laburtua* era-berean batek Gaztelaniaz eta besteak Euskeraz zuzentzeko asmoakin, nai baziran ere izkuntza biyetan eta liburu batean alkaripiñi, gauza ber-berak esan eta kondairaturik. Eta Jau-naren grazia eta laguntzarekin geron erasotxoari buru eman ere diogu.

Zenbat gizon adituk eta zenbait itzkera-modutan Santu onen bizitza eskribatu duten, zearo ta garbi nork adierazo? Izendatzekoak dirade ala ere gai one-tan A. Pedro Ribadeneira, AA. Bolandokoak, Orlandino, Maffeo, Bartoli, L. Ortiz, L. Lebrun, Bouhours, A. Lucas, Francisco Gracia, A.F. Mariani, FLubiá, C. Genelli, eta Daurignac.

Bañan ordea emengo gere euskera anziña-anziña-ko ederrean, San Inazio beraren lendabiziko izketa gozo maitagarrian, ze bizitza-mueta eskribatu ta argi-taratu dirade gaurdañokoan? Sentigarria da gai one-tan zerbait geixeago, mundu osoaren, baña batez-ere

beren edergarri ta gloria dan Santuaren onran Euskaldunak ez egiña.

Ala ere, Gaztelaniazko eta Latiñezko bizitzaen aldean ezer gutxi izan arren, zerbait ere egiñ eta saiatu da orobat Euskaraz San Inazioaren gañean. Bere alabanza ta azañak kanta zituen itz neurtuetan A. Sebastian Mendiburu Jesusen lagun Oiarzun-dar eta misiolari ospatsuak Euskaldun onaren biziera deiturik argitaratu zuen liburutxo batean, eta beste bere eskribu ederretan ere bai maiz. A. Agustin Kardaberaiz Hernaniko semeak, eta santutasunean eta animen zeloan mallarik goienekoak, eskribatu zuen, luze, zearo ta garbi jaierazko itz-giro eztizkoan Aitalen santubaren bizitza; baña juañ dan eunkidan molderatzeko zegoan unean bertan bera bere lagun errubageakin batera Italiara erbestetua izandu zan, eta eziñ arkitu izandu da gaurdaño bere eskuskribu osoa, agiri dala ordea eskuratu diraden bat edo beste burukida edo kapituluetatik liburu ederren bat izango zala. Berak argitaratua da ere Euskeraz leku askotan Santuari egin oi zaion bederatzi-urrena, beste askotan A. Mendiburu-rena bezela; eta utzi zuen ere eskuskribatua bere doanditza edo panejiriku eder bat. Prai Cristobal Linaza San Franziskuren ordenako predikulari ta animen

txit zelodunak eginda, Tolosan azaldu zan oraindi urte asko ez dala, San Inazioren bizitza neurritzko erausialdian, au da, ogeita amazazpi Santu beraren martxamodutan. Aita Jose Goenaga Tolosaarrak eskribitu zuen ere, A. Ribadeneiragandik aterarik, Santuaren bizitza labur obeeneko bat, eta eskribatua arkitzen da oraindik, Jesusen Lagundiaren sortuera eta geitzearen gañean ezer gutxi itz egin zuelako argitaratu gabea gaurdaño gelditurik, osteronzean txukun eta Euskara garbi pollitean badago ere. Orain bi urte (1866) On Gregorio Arrue Zarauzko eskola-maixu Jaunak Euskara garbi onean ipiñi eta molderatuazi zuen Tolosan Santuaren bizitza laburtxo bat. A. Croisetek Kristaurtea deizkion liburuan dakarren erakoa oso, eta A. Francisco Garciak gaztelaniaz konpondutako bizitza eder luzea ere Euskeratu duela badakigu. Azkenik Juan dan urtean Baionan agertu zan, Eguillearen izenik gabe Santuaren bizitza berri bat Euskalerra Sortaldekoaren izkuntza lirañean, onako izen onekin: *Bi Saindu Heskualdunen Bizia San Iñazio Loiolakoarena eta San Franzisko Zabiarekoarena*. Asierako bi-itzetan Ribadeneira, eta geiena Doriñaken obretatik bildua dela dio; eta egiaz iztun eder Daurignak bera Euskaraz gozo-gozo donariorik egokienean, galaikiro, eta

erausi atsegintsuan diarduela badirudi. Balitezke guk ez dakizkigun bat edo beste geiago izatea oraindik.

Laburkidatxo onen gaiak ere eskribalari aipatu ditugunetatik eta beste eskuskribu sinisgarrienetatik bilduak dirade, eta diogun guzi-guzia, Aita Santu Urbano Zorzigarrenak agindu edo manatu zuen bezela, Eliz Ama Santaren iritzi-mendean jartzen degu.

Nai degiola Jainko gure Jaunari zerbait eskributxo onek serbitzea bere gloriarik goi ta andienerako, Ama Birjiña ta San Inazioren onrarako ta animen on eta salbamenerako.

*Quidquid ego scribam divino cedat honori:  
Grammata cuncta Dei dirigat alma Parens.*



**LENENGO PARTEA**  
**Bere bestetzeranoa**

# 1.º BURUA

## Jaiotza ta aurdenbora

Jaio zitzaigun San Ignazio, Iñigo-ere izendatua, 1491garren urtean, Loiolako aitaki-etxe eta gazte-luan; Azpeitiko erriaren mugapean, ta ez urruti bertatik, Azkoitikotik ordea geiago piskatxo bat bi erriyak daude probinzi Gipuzkokoan, eta Iraurgiko ibar eder, Urola ibaiak jirabiratzten duela, mendiz inguratuaren erdi-erdian.

Zorzi anai eta bost aizpa, amairu senidetatik atzenengoa izandu zan, eta bere gurasoak odol garbi goienekoak, *aide andizkietakoak* deitzen zietenak, Beltran lañez Oñaz ta Loiola Azpeitiarra, eta Marina Saenz Licona ta Balda, Azkoitikoa berez, baña jatorriz Bizkai-ko Hondarroa deritzan errikoa, ziraden. Etxe ori gaurko egunean Narrosko markesarena da, eta oso-oso dirau oraindik erriaren alboan, Izarraitz aldeko egitxo batean.

Arabakoa zan orobat amaren aldetik, eta Gebaratarren etxe ospatsuaren belaunekoa Jesusen Lagundiko A. Gabriel Henaok, Kantabriako Anziñatasuneen obran argi-asko adierazten duenez. Au bada onela iza-

nik, egiaz dirudien bezela, iru Probinzi aizpak alkar onoretu litezke, aĩn seme argiari bere odol eta sortzea eman eta egotzi ziotelako.

Lau alde igualetakoa da gaztelua, ertze bakoitzean bere torretxoakiñ, eta lau aldeetan bere ekitxu-loakiñ, zeñetatik punteritu oi zituzten lau sutunpatxiki; oetatik bat Loiolan bertan arkitzen da, eta beste bat Madrillen jauregi erregaleko armategian.

Zeñ egun eta gelatan aurtxoia jaio zan eztakigu. Batzuek esan dute eze, orduan mandotegia zegoan, beeneko bizitokiyan, non bere ama onak argitaratu nai izan omen-zuen, zerbaitean beintzat Birjiña Maria guziz Santari Belengo estalpean anzeratu ta jarraitzeagatik: baña kondairatzalle adituenak, goian jaio zala diote.

Beintzat sala-nausi izandu zan atalburuban kanpoko aldetik eta ondoko sala-aurrearen etxa-goian irakurtzen da onela.

*«Hoc sacellum portentis illustre  
Societati fundatorem,  
Ecclesiae propugnatorem,  
Mundo restauratorem,  
Caelo dovum Ignatium edidit».*

Onetatik dirudi, an onela ipiñi zuten Aita zarrak, bere jaiotza-tokiya hura zalakoan zeudela; zeñ eta *caelo edidit* esanarekin adierazo etzuten bere Jaungoikoaganako on-biurtzea.

*Etxe santua* gaur deitzen zaion bizitoki dana, ganbara aitatu gabe, iru bizitzakoa da ta izandu ere zan, oraiñ ordea kapillaetan biurtua, lenengo dala esan degun sala nagusi goieneko hura.

Badirau ere oraindik Azpeitiko Eliza nausiaren bataiotegian bera bataiatua izandu zan ponteak, zurezko taparekin estalita; eta gañean dago tallazko iduritxo bat, beatzarekin beerontz siñalatzan duena, diola Euskeraz:

«Ementxen batiatuba naiz».

Aurrenengo izengoiti itzat Loiola eramatea anziñako oitura batetik zetorkion, zeña zan ondorengo semeai aitona lenagokoen-batena ezarritzea bakarrik lenijaioa edo maiorazkoa, aitarenarekiñ gelditzen zala.

Umetandik asi zitzaion Ama Birjiña Maria guziz-Santari eta San Pedro Apostolu gloriatsuari beti iduki-

izan zien jaiera bizia. Ala noski zuzenbidetzen zuen Jaungoikoaren begiruneak, ondorean esango degun bezela; eta jaiera biyak nunbait-ere sortze berezkoa Loiola inguruko bi Ermitetatik izan bear zuten, zeñeta-ra sarritan bakarrik edo etxeoakin jua oiko zan; bata dago Izarraitz azpiko Loiola Azpeiti bitartean, Ama-Birjiña Olazkoaren izenarekin, eta bestea berriz San Pedro Egimendirenarekin urreraxeago, eta Oñazmendira goazela, aldaparen asieran, biurtua ordea baseurretze izen berarekin eunkida onen 35en urtetik. Oñazkoen etxe izana dago mendiaren erpiñean, anziñakoa bera ezpada ere oso, bada oraingoa guztiz obra gerozkoagoa da eta Granada-Egako dukeari dagokio.

## 2.<sup>en</sup> BURUA

### Bere gaztetza

Bat edo bestek esan dutena, eze, bere izeba edo aide urrekoren batekin Arevalon gaztetzako urteak igaro zituela, ezerezeko arrazoi-antza duena da; bada indar-gitxikoak dira A. Henaok eta beste nork edo nork artarako dakarzkiten probagaiak. Egiyena da, eskola-gauzak bukatu ondorean, Errege Fernando Fedeosodunaren gortean paje edo jarraile-gazte, bere gurasoak ipiñiazi zutela.

Jauregietako lanikez eta erregaloakin nunbait, eta anbat ere soldadutzak gazteetan berez dakarkien libretasunarekin, eman zan zerbait txorakeri eta zabarkerietara; eta ainbesteraño eze, bere kondairatzaille egitsuen Ribadeneirak deitu zion *soldadutzar zorakerizalea*, nun eta esaera orretan geiegiren bat arquitzen ez dan; bada lekuko sinisgarrietatik agiri dana da, orduan bertan ere zaldun Kristauzkoen antzera zebillela; bada begirune ederra zeukan gauza sagraduenzako; arreta andia mingañarekin; biotz zekentasun eta gutziaren aztarnarik ere etzuen, ikusi zan bezela Komunidadeak zeritzaten Gaztelako

iskanbillaetan Erregeren tropak Najera arrapatzean, ezertxo-ere beretu nai gaberik; gañera bere onginaia etsai zituenakin ere laster adiskidetzeko; kementasun guztizkoa gauza zalletarako, bere urteaz gañeko pres-tutasuna; eta trebetasunik piñenetakoa, gizonai igarri-ta borondateak irabazten.

Bertute ta doai eder oiez gañera, soldatu-lanetatik libre, asti piskatxoren bat zeukanean, aritzen zan noiz edo noiz San Pedro Apostolu gloriatsuaren alabazan erezi edo berso-aldi jaierezkoak moldatzen; aiñ zale-tua zegoan bere azaña eta bertuteaz, baña batez-ere bere leialtasun eta portiztasunaz, zeñarekiñ Oliveteko penditzean, ainbeste jente gaixto armaturen bildurrik gabe nai izan zuen bere Maisu Jainkozkoa kemen andiaz ta ganibetaz-ere gorde ta eskudatu. Ez da ordea zer zalanzen ipiñi, bere Apostolu Santuarenganako jaierek, aitatu diran gauza oietan baño, sustrai mardul beragoak zituela Jaungoikoaren asmoan, zeñek ala agintzen zuen, denbora sasoikoan bera berez eta bere seme garaizaleaz, irten zedin Eleiza Santaren alde eta zabaltzerako, egonik au San Pedro eta bere oñordeko Erromako Aita Santuen fede, aitor-men eta lenentasunean, arkaitz gogor batean bezela, sendo ezarrita.

Alaz guztiaz ere, bide-ona utsegiñik bizi izandu zan ogeita sei urteetaraño. Zenbat zituenik ezta senti, galai irme liraiñ ta arroa ta arma-gauzetara, bere aurreko ta anaien eran, zaletua zebillela, Najerako Duke eta Naparroako erregeorde Don Antonio Manriqueren banderapean *borondatezkoen* edo *siñalatuen* artean dirudienez oraiñ esan oi dan bezela, izendatu zanean.



# 3.<sup>en</sup> BURUA

## Iruñeko gaztelua portizki eskudatzen du

Ogeita amar urterekiñ Errege serbitzen ziarduen, itzali gabetanik oraindik zearo Komunidadeen gerra sutu galgarria.

Irten zan nunbait Erregeordekoa, Enperadore eta era-berean Errege zan Carlos V kanpoan zala, erresuma eraentzen zuten andizkiakin Segovian alkar-ikus-tera, Iruñeko sutunpadiya aurretik bialtzen ziela; eta lagun gutxi bertan gordelari utzitzen zituela, zeñetatik bata, ala-bearrez, gure Ignazio zan.

Berandutxo bederik, oartu ta baliatu zan une egoki onetzaz Franziko errege Franzisko Ia, eta Noionen enperadorearekin egindako pakeak ausirik, bere kuñadu Enrique Albrit, edo de la Brit zeritzan errege Naparroakoari lagundu nai izan zion. Orretarako Naparroara, zeña orduan D, Fernando fedeosodunaren mendean zegoan, gerrari-talde galant bat bertatik bidaldu zuen, zeñ 1521garren urteko Orrillean, Roncesvalles-aldetik erasorik Uri-nagusiyen sartu zan.

Izanik gazteluko jendea, Sandobal Cesaren kon-  
dairatzalleak dionez, eskaxa eta ergela, desailaitu ta  
makaldu zan bereala, eta jarri zan tratuak egitera, eta  
toki hura francesai eskuratzera, bertako Alkate Fran-  
cisco Herrera berak ere kontra gogorrik egin gabe.  
Ignazio ordea, zaldun ausarditsu ta leialaren gisan,  
asarratzen da biziro; ezpata artzen du; eta ainbeste  
aldezake bere begi-bizi ta itz-sutuakin lagun bildurti  
aietan, eze, guztiak batean erabakitzen dute kontra  
portizki egitera, eta prestubak bezela ill edo garaitu.

## 4.<sup>en</sup> BURUA

### Eritzen dute

Bi edo iru egun erreskadan iraun zuen gogor pranzesak, murrak artilleri sendo batekin sutunpatzen.

Puskatuak zituzten atea tiroka, eta alde batetik bretxa irikiya; ala ere, setiatuak bildurraren izpirik gabe, alaitzen ziradela galanki, beren aurrean ainbeste ausardiz ari-zan Gizpukoatar galai arroarekin. Baña badatorkio alako batean balatzar bat, anka biyetan ematen diola, eskuikoa gañetik printzaturik; eta aunaikoa izandu zan, makaldurik lagunak gaztelu-gordetzari bertatik utzitzeko, eta kontrakoengana menderatzeko.

Gertaera au izandu zan 1521garren urteko Maiazaren ogeiyan, eta alabearrez Espiritu Santuko Pazkoa-bigarrenean. Ondorengoetan, gaztelua bota zanean erituba izan zan lekuan kapilla edo basilika dioten eleizatxo agiri bat egin zan, zeñak gaurdaño dirauen betiko oroimen otsandiko hura eta Santu Aitalen-goaganako uriaren jaiara ere azaldurik.

Garaitzalleak begirune ta modu onekoak Iñigo erituarekiko, izan ziran, eta bere kemen ez-nolanaikoa-

ren miratzalleak; eta nor eta zeñ etxe purubekoa zan  
jakiñik, etxera-zediñ modua egiñerazi zuten, ekarten  
zutela esku-silla edo katabera batean Loiolaraño zen-  
bait gizonen artean.

## 5.<sup>en</sup> BURUA

# Sendatzen berriro jartzan da

Zala Iruñ-en zebiltzen sendatzalle pranzesen batzuen jakiñezaz, zala bideko mugitzeagatik, etxera etorrita oiratu zuten orduko, agertu zan bereala sendakizuna berritzearen premiya, eta burniren batzuekin eta ondorengo diran oñaze-miñakiñ bi ankaetatik gaizkien gelditua, zeña, esan dan bezela, eskuia zan, polliki polliki luzetuerazi bearra: eta orretan guzian ez da errez beregan zer geiena miretsi, edo oñazeen gogortasun samiña, edo oiek eramaten bere portiztasuna; bada ez aienetxo bat esaterik, ez kolore aldatzerik zuen; ezpada egiten zuena zan, ekubillak estutu eginkizun izugarri aiek zirauten bitartean. Oietako bat, eta eziñ-esan-alako biyotztasun ta kemenarekin pasa zuena, izandu zan, obetutzen ainbestean aurreratu zan garaian bertan, belaunpean irten zitzaion ezur galant bat, berak ala naita, ondo-ondotik zerratutzea.

## **6.<sup>en</sup> BURUA**

### **Bere onbiurtzea, eta zenbait mesede miragarri zerutikakoak bereganatzearen asiera**

Gaitzak okerragora eman zuen. San Pedro bezperan elizakoakiñ, etsita, eta puntutik-unera eriotzaren begira arkitzen zan, agertu zitzaionean gau artan bertan Apostolu Santuba, osasuna aiñ osoa zekarkiola, eze, bereala, perillik gabetanik ikusi zan.

Obetu zanean, gaixtakeri guzien sustraia dan alperkeritik alde egitearren, irakurtzeko zaldunkerikontuetako liburu batzuek eskatu zituen zeñatarako beti griña andiya izan zuen, baña batez ere Amadis Gaulakoaren ipuizko egintza andietarako. Baña Jainkoak nunbait ala naita, etziraden arkitu, eta ordañez beste bi guztiz besterakoak eraman ziozkaten, bata *Flos Sanetorum* edo Santuen bizitzetakoa, eta bestea Jesu-Kristo Gure Jaunaren bizitzakoa, zeñ, A. Bartolik gure Santuaren italianozko luze ta ugariyan dionez,

zan gaztelaniaz itzulita, Landolfo edo Ludolfo kartusia-  
noak moldatu zuena bera.

Eta berriro ager-dediñ zenbaterañoiko ongi andiak  
dekazkien liburu onak irakurtzeak (nola ere bestetik  
eziñ-konta-alakoa dan gaixtoak dakarten ondamen  
galgarria, naiz oraingo paper, infernuko asmakizun,  
eskuz-esku dabiltzan oriek bezela, orri gutxikoak  
izan), argitu zitzaizkan adimentuko begiak leetutze  
aiñ probetxu ta Jainkozkoarekin, eta beregan ordutik  
bere onbiurtze zorionekoaren su txingar biziak senti-  
tzen asi zan.

Ordea abiatu zan bere barrunbean despitarik  
gogorenetakoa, batetik aragizko edo gorputzeko  
loxentxa eta munduko itxodongizunak zituela, beste-  
tik berriz, Jainkoaren graziak gozoro ta portizki bere-  
gana deitu eta zaletutzen zuela. Luzaro ta gogor des-  
pitak iraun zion; baña azkenean alaere garaimena jau-  
narena izandu zan, zeñak, San Pabloren gisara, bere  
gloriaren zabalkida txit andi eta eziñ kopuratu-al ani-  
men salbamendurako autatu zuen.

Gelditu zan bada, santurik goienetakoei ta guzien  
gaiñ Santu danen Santu danari jarraiturik, bere burua  
oso bestetzera, penitenzia gogor batera, eta bizitza  
santa ta obeenekora, beti-betiko erabakita.

Egun gitxi-barru oraindik, beste ontarte ta zeruko eskuerakutsi goragoko batekin Aingeruen Erregiñ txit itzaltsuak, bere Seme eziñ-obeia besoetan zekarkiola, mesedetu ta ikustalditu zuen, eziñesan-alako gozotasunez anima ase ta murgildurik; eta gañera kastutasun aiñ garbi ta aingeruzkoz edertu ta aberastuta utzitzen zuela, ze geroztik etzuen egundaño zirika edo tentaldi ezonestorik senti izan.



## **7.<sup>en</sup> BURUA**

# **Bere bertute garaien lenengo azalduera**

Ez da zer zalanzen ipiñi, santuak santu, bertutez apaindu ziradelako, zirala, eta batez ere danen erregiña dan karidadea-gatik, eta edozeiñek daki ez dagola beste biderik zerurako. Danak-guztiyak iduki izan zituen gureak goieneko mallan, baña ala ere, noiz eta noiz, denbora, leku, egiteko eta beste gauzak eskatzen edo berez ziotenez, batzuek besteak baño geixego azaldu eta gorago agertuazi zituen.

Eta aurrenengo, bidezkoa da izan-ere arreta pixkatxo bat bague ez pasatzea, bere Erregerenganako zeukan leialtasun bene-benetakoa, eta jaioterriarenganako onginei ta maitetasun txit biotzekoa (bertute oek alegiya, Erlijioekin batean, anziña-anziñatik Españatarragan ta beren bizimoduetan sustraituak daude) zeñakiñ gure Ignazio andia aurkez-aurke bala-zoetara jarri zan, eta bere onore-tokiya gordetzearren, eriotza igarotzeraño ere eskeñi zan, eta lan irriskatu artatik miñ eta damu gorriyan atzeratu bearra izan

bazuen ere, probatu ta agertuazi zituen beintzat ederki ta galanki bere prestutasun eta biotz-anditasuna.

Bere ta mundu osoaren ainbeste onerako, santutasuneko bideari jarraitu zion beziñ laixter, beste bost bertute, guzien artean, are bitoreagoak, gallortu eta kopeta altxatzen bezela beregan asi ziran; oek zira-den, Jainkoaren gloriagatik gauza andiyai erasotzeko *kementasuna*; aiek ondo bukatzeko, muga-bagero *ustea* Jaungoikoagan, bere esku ta mesedearekin; gure Erakusle ta Erredimitzalle txit Santua-renganako *amore* biotz-biyotzekoa; entero urretik bere ibillera erakuste eta egiteai segitzeko *erabakiera*; eta gure Ama Andre Birjiña-renganako *jaiera* biguñ, semeti, egiazko, iraunkorra, zeña gero Iñigo Santuak bere semeai ainbeste gomentatu zien, eta da zeruratuko diran guztien siñale zorionekoa. Danetan irme ta pijo aurreratu zan, azkeneraño iñun geldi bage, beren betealdiya ta silluba bezela *iraute-onarekin* egotzi ta emanaz, eta iñoiz-ere bere serbitzari leialenakgatik maitatsu, ongille, ta oparo izaten garaitua izatea eziñ eraman duen Jauna, guztizkoa izandu zan beretzat aiñ autatua zeukan onekin.

Nolatan ordea? Jainkoak berak aurkezten ziozkala jaki-gozo-bat bezela, milla ta milla bide, eta egiñteko-

rik zallenetakoak zeñetatik bere izen-guziz Santuaren gloria ta onore txit aundia sortu zan; esku-emanik beste asko alditan, beragatik artaratu zan perill, neke, lan ta gora-beraetatik pake onean atera ta salba zezan; pagaturik bere amore semeti eta irazekia beste muga-bageko aundi eta gozoagoarekin, eta bere albo-alboan gerrari leial eta bortitzenetako baten gisan eramanik, izan zediñ peliatzen, garaitzen, sari eta merezierak iristen beraren antz andikoa, eta beti bere Ama Birjiña guziz Santaren seme leial eta mesedetua.

Gauza banaka ta bakoitzaren gañean erautsiea, ez darama ongi laburkida baten estutasunak. Ikusi leizkate ordea oiek irakurleak, gure Santuaren iru bizitza aiñ eder diraden edozeñetako baten, zeñak, beste askok bezela, A. Pedro Ribadeneirak izkribatu zituen, bi laburrak gaztelaniaz eta latiñez, irugarrena alabañan askoz luzeagoa, nun era-berean bere Erlijio sagra-duko zertarako ta bizilegearen arrazoi txit garbi zearoa eman zuen, gai onen gañean argitaratu bazuen ere beste obra berezi balio ez gutxiagoko bat, onako izen onekin: *Lagundiko gauzeen zergatikakoa*.

## **BIGARREN PARTEA**

**Ikasten asi zan arteraño  
San Ignazioren eginkizun  
eta bertute lenendariyenak**

# **1.º BURUA**

## **Bere etxea utzi eta Monserrate-alderonz irteten du**

Arestian aitatu ditugun asmo eta pensakizun goitiyak bere barrunbe alaian zerabiltzkiela, doi-doi ta osta-osta, senda-berriya oraindik oñen gañean zebillela, jaioterri ta aideak betiko oso utzitzea erabaki zuen; eta Monserrateko bakartegi ospatsura aurrenengo erromerian joanik, gero Jerusalengo leku Santuetara pasatzea, an, bide-jarraileai serbitzen, gertatu ziraden tokietan bertan gure Erredenzioko ezkutamenak gomuntatzen, eta fedeko egiakin fede-gabeak argitu ta erakusten, bizi guztiya igarotzeko ustean. Garaiturik bada etzekoen eta batez ere bere anaia zarren Martin Garciaren kontraldiyak, beste anai batekiñ eta bi morroi lagun zituela Oñatirako bidea artu zuen, nun bere arreba-bat ez konduba bizi zan; laxter igo zan ordea andik Ama Birjiña Arazazukoaren jaierezko Eliza ta komentura, zeña erriyaz gaiñ Aloña-mendijaren eguartealdera arkitzen dan, eta gau bat osoa an Ama

Birjiña txit Santa beraren aldare-aurrean ernai igaro zuen, urte batzuez geroz Iñigo Santuak berak eskribatu zion bezela Erromatik San Franzisko Borjari (1554ko Abuztuaren 20an) onako itz oiekiñ: «Zerbait nere bizimodua zuzentzeaz Jaungoikoak mesedetu ninduanean, oroitzen naiz ondo protxu-egiñ ziola nere animari, gaba elizbarru galant artan ernai igarotzeak»: zeñak bere esaera aiñ umillarekin adierazten dute noski, mesede guzizkoren bat nunbait ere Ama Andre Birjiñak an egin ziola.

Lagunak atzera bialdurik, joan zan andik bakar-bakarrik, bere aide egiten zan Naxerako Dukeari ere Navarreten agur egitera. Valenciako erresumatik barruna, Cataluña aldera zijoala, moru pakezkoak deitzen zitzaiezten-etako batekiñ topo egin zuen. Izketan asi ziran eta gai batetik bestera beren erausian Ama Birjiñaren Birjinatasunaren gañean tratatzera igaro ziran. Birjiña Birjiñ jaiotza Santu ordorean gelditu zala, ukatzen zuen oso mairuak; orduan alabaña Ignazio, asiberriaren jakiñezarekin, bai-ta ere ordea Kristauzaldun mallazkoaren-gisan fedegabe hura birau argatik illko zuen edo ez, zalanzan egondu zan. Zer egiñ etzekiela, beregan pixka bat sartuta gelditurik, bidean aurreratzen utzi zion, eta pensatzen jarri zan bere

artean; eta azkenean erabagi zuen eze, baldiñ bera zeraman muxal edo zalditxoak agiri ziran bi bideetatik mairua zijoana, eta au onena eta erosoena segitzen bazuen, arrapatu eta dagarekin pasatuko zuela; baña, Jainkoak ala naita, bide okerren eta zakarrenetik abereak artu zuen.

## **2.<sup>en</sup> BURUA**

# **Jesu-Kristoren soldatutzako armak gabaz Monserraten zaitzen ernai gelditzen da**

Monserratera igaro orduko, bere lendabiziko egitekoea izandu zan, D, Juan Chanones zeritzan San Benitoren ordenako monje edo bakartar batekin iru egun osoan konpesio jeneral edo pekatu guztien aitortze danik damutuenetakoa ta biotzezkoa egitea. Urrengoan, beartsu bati bere janzi eta apainduriya ederrak eman ziozkan, eta asmoan zeuzkanak, ondo bestelakoak ala ere, janzi zituen; zeñak ziraden, kalamuki saku bat, burnizko katea soka batekin goapillatuta, espartzuzko oñetakoa eskuikoan, bestea agirian zuela, eta eskuban berriz uretarako kurkubitaxoa zinzilika zeraman bide-jarraileen bordoia. Eta zaldun asiberrien oiturari jarraitzeagatik, (zeña izan oi zan ezpata lenengo janzitzen zuten egunaren aurreko-gaba esnaa arma gordetzen igarotzea), Ama Birjiñaren Berri-on-edo Anunziazioko-pesta-aurreko gabean



(1522 garren urtean) gelditu zan ernai, espirituzko bere soldadutza berriaren armak gordetzen, zeñean ordutik beti-betiko Birjiña-txit-Santaren aldare-aurrean izendatzen zan.

Aberea bakardegi edo monasterioan utzi zuen; ainbeste orduraño maite izan zituen ezpata eta doga edo traketa elizako pillare batean ixegi zituen; eta egun andi hura argitu baño lentxeago Jauna-arturik, irten zan iñork ezagutu etzezan egunsenti berean, eta oñez belaun-gozo onarekin Mandresa-aldera jo zuen zuzen zuzen; ezagutu zuen orregatik Barcelonako emakume-on Ines Pascual zeritzanak, Santutegi bera albistaturik, beste jendearekin jetxitzean, eta aldatzean topo-egiñik, itzekin zion, eta gidatu zuen Santa Luciako gaixotegi edo hospitalera.

### **3.<sup>en</sup> BURUA**

## **Mandresan eraman zuen bizimodua**

Damupena ta humilkizunetara oso-oso emateko zeraman asmo sendoa betetzen Manresan bereala kemen andiarekin abiatu zan.

Ala-bada, debekatu zion bere buruari bizitzeko ere bearrenetakoa zuena, lo gitxi egiten zuela, eta oia lurrean, arri edo zur puskaren bat burkostat zeukala. Denbora asko gabaz igarotzen zuen, zala otoitz txit arretazkoan, zala gogor bere gorputza azotatzen eta zeatzen.

Goizean-goiz bereala meza enzun, eta beste eliza kantu ta erregualdietan jaiera ta poztasun guztizkoarekin ego oi zan. Igandeaz kanpora, aste osoan ogi-uraz barau egiten zuen, ogia bera ere eskean bilduta, beltz eta gogorrena beretzat arturik, onena beste pobre edo beartsuai emanik. Eta bere jantzi edo sakupean zeramazkien gañera zilizioa ta burnizko katea gerrian lotuta, burua berriz orraztu bage eta illea naaspillaturik, eta luze-luze azkazalak.

Gogorrak ziraden alegia gauza oiek guztiyak, eta labur izatearren aitatzan ere ez diran beste asko; baña kemen andiagorekin oraindik ere eraso zion bere burua ukatzeari, eta griña gaixtoak ilduratzeari; bada gure izate ergel oni aldatzena ta gogorrena egiten zaion hura guzia gogoz laztantzea, lege eziñ-ausikorra bezala beretzat artu zuen, asmaturik eta billaturik gañera bide ta moduak utsean-idukia izan zediñ, eta eresi bete-betean bere odol ospatsu eta noblezarekiko arrotasun eta galaitasuna oso menderatzeko.

Gañerako eguna pasatzen zuen, batean gaixoai egitekorik bajuen eta naigabetsuenetan ere serbitzen da morroitzen, bestean berriz eskean atez-ate; eta asieran limosna edo amoina baño gaizki-esaka eta humillkizun geiago baturik, baña ezagutu zutenean geixeago, iseka ta burlak begiramendu ta errespetoan bereganako biurtu zitzaizkan.

## **4.<sup>en</sup> BURUA**

# **Bere gonbate ta erasoak etsaiarekin, eta aitzuspe batean igaro zuen bizitza**

Etzegoan ez lo eta oartu bage bitartean inpernuko deabruba zirikatu eta atsekabetzen zuela, bururaturik txit azkar, eta begien aurrean ipiñirik beeratasun artatik berari ta bereai nai ta nai-ez etorriko zitzaien desonra. Ignaziok alabañan zeruko argitasunarekin igerri zion, eta gaizkiñak botatzen zion sarea ezaguturik iges-egin zion beste beartsu eta pobreen artean sartze utsarekin, berenetako nazkagarrien batekin laztantzen zala, eta berarekin igualean adiskiderik kutunenaren eran tratatzen zuela.

Laxter billatu zuen Uritik urrean aitzune ezkutatu bat, eta an ordu asko gabaz eta egunez igarotzen zituela, anziñako eremutarren gogorkizunak beregan berritu zituen, barauakiñ oso ergeldua zeukan gorputz hura azotaldi odolezko asko ta askorekiñ zeaturik, luzaturik ordu segitu askoan, eta geiyenean belauniko

egi beti-betikoan gomuntatzea edo pensakizuna, eta itz batean, ez gizonen, ezpada zerutarren bizimodua zeramala eta agertzen zuela.

Aitzbitarte ospatsu hura gaur jende asko dijoakion santutegi eder jaierazko batean biurtua arkitzen da, kapilla ta jarduntza santuetarako etxea ere Jesusen Konpañiak an ditubela.

Baña ordea, ainbesterañoko damukizun edo penitenzi-neurrigabeak (bada ainlakotzat gero santu berak iduki zituen) aurki oso auldu zuten; eta urdalla edo estomagoa makaldu zioten, eta gaixotasun andi batean erorita, iya-ia eriotzako tranzean egondu zan; eta orra zergatik etsaiak beste sare-bat ere zabaldu zion, alegiñean klaru begien aurrean ipinten ziola eziñ zezakeala iñolako moduz gogor-aldi aiyekin iraun oraindik bizi bear zituen beste berrogeita amar urteetan. Igerri zion ordea berriz-ere, eta irrist iges-egiñ zion esanaz: «*Eta alderakidak ik, doakabe orrek, agintzen dizkidakan ainbeste urteetatik puntutxo bat ere segurutzat eman...?*».

Etzizaion orregatikan ere deabrua atzeratu, ezpada eriya medikuagandik lagata, eta orduoro eriotzako zorian bezela zegoan une artan bertan, bazirudien bere barrunbean esaten ziotela ezik, alegriyaz arren

eriotza itxodon bear zuela, bada ainbeste barau, damukizun, birtute ta merezierarekin aberastua zegoan ezkeru, santua zala iñolaz ere. Lenagokoai igerri zien argi berarekin ikusi zuen ere Ignaziok urrengo sare au, besteak baño ere perill geiagokoa; eta eziñ botarik beragandik alegiñ guztiaz-ere bururazio beti gañean zetorkion hura, eriyotza bera baño ere eramankizun gogorragoa egiten zitzaion.

Orduan bada ederki egin zuena izandu zan, oroi-men biziarekin bere leenagoko pekatuak gogoratu-zea, eta Jainkoaren erruki ta kupiratasunean uste guzia jarririk, damu-onezko egiñtza asko biotzez egitea, eta onela iges-egiñ zuen gaitzik gabe debruaren eraso gogorretik. Gelditurik ordea ekiñaldi latz artatik oso nekatua eta bildurtua, bere itz eta sentidu guziak berriro, Jainkoak ala naita, biurtu zitzaizkanean, bereala laguntzen zeuzkan personai erregutu zien, berriz eriotzako zorian ikusten bazuten, arren deadarka belarrira berari esateko: *«Oroi ari, pekataria, oroi-ari, egiñ ditukan ainbeste kulpaz, eta berak gatik merezi ditukan penaz; eta ez uste zerua iritxi dekala, ezpada inpernua merezia daukakela»*.

## 5.<sup>en</sup> BURUA

# Eskrupulo edo artukitzeen batallia

Etzan orrenbesterekin ere mendetutzat eman dea-bru gaixtoa, ala-nunbait Jainko gure Jaunak utzirik, bere serbitzallearen on askorako; zerren bertutez kargatua dijoan ontzia, tentaldiyan lastrerik gabe, ondartzeko zoriyan dabillen.

Izugarría izandu zan, etsaiyak artarako zirikatirik, eskrupulo edo artukitzak, konpesiotik oña arturik, erakarri zioten gerra, gaizki egiña ote zeukan edo ez oso kezkatirik, eta uste zuela gaixtoa zala gañera egiten eta pensatzen zuen dana guzia. Emendik legortasun eta tristura aundi bat sortu zitzaizkan, eta Monserratera sarri biurturik, San Benitoar bere konpesore onaren oñetan, malkoa plei-plei zeriola irauli arren ere, eta ark modu onez konsolatzen eta paketzen bazuen ere egiñalean, dana zan gutxi beretzat; eta ainbeste-raño tentakizun ark estutu zuen, ze, uste guztiyak galdurik, bere burua leio batetik bera botatzeko egon zan; ala ere kemenez kontra egiñ zion, agitz esanak:

«ez det orrelakorik egingo, ene Jaungoikoa; ez nik egundo zure kontra aín gaiztakeri ta pekatu izugarri-rik»; era berean, itzez baño ere geiago negar-malko ta suspiruz bene-benetan erregutzen zion, bada lurrean pozik topatzen etzuen ezkeru, arren berak goitik oso errukiturik bialtzeko. Jaunak ordea utzi ta utzi gogorki bere eramakizun ta batalletan, ez bere onerako baizik, ezpada beste askorentzako, zeíñaen aita ta maixu ondorean bera izatea nai zuen. Onetan nekatua arkitzen zala, oroitu zan Santuen bizitzaren baten nunbait ere irakurri zuela eze, bein bat, era-artako gerraditik libratzearren zortzi egun erreskadan ez-jan ta ez-edan egondu zala; eta puntutik, beste ainbeste egitera jarri zan, larunbat batetik besteraño bokadu bat probatu eta txurrut bat ur ere edan gabe; gauza egiaz mirari-agiri bat bage gerta-eziñ zeikeana. Eta asmoa zedukan artan aurrera segitzeko, etzan alabañan atrebitu alakorik egitera bere konpesorearen iritzirik bage, eta onek azkenik arrazoiz utzi-erazo ziozkan geieki aiek, bere-bereala jan zezala aginduaz. Eta nola bai Jainkoaren nai-ederrekoa dan lurrean bere ordeak egiten dituztenai guk zintzo obeditzea, asko izandu zan gogoz bertatik Ignazio obeditzera jartzea, ordu berean itzal beltz aiek kentzeko, adimentua oskarbitzeko, eta



lenagoko sosegu ta gozotasun hura guzia oso beragatatzeko.

Onela saristatu zuen Jaunak nai izan zuenean, zeruko erregalo ta doaiyakin bere serbitzari leialaren obedikizuna, onela bere amarez eramandako neke ta erasoak, ta onela batez ere aiñ bereala agertu izan zion biotz-ontasun ta ema-naitasuna berari atsegin eman eta morroitutzeko, ez bere protxu ezerengatik, ezpada Jaungoiko beraren gloria ta alabanzarik andienako.

## 6.<sup>en</sup> BURUA

# Zeruko mesedeak

Abiatu zitzaizkan aurrerakoan anima guztiz mesedetu ta kutunai eman oi zaizten ontarte ta gustorik atsegintsuenetakoak, nola bai ziraden zenzuzte ta kordegabetze zeruzkoak, eta bere almenen goira-tzeak, zeñakin, gizon illkorrak aldeakeanez, ikusten zituen zearo Fedeko egiyak, eta batez ere Jainkoaren izatea bera, eta Irutasun edo Trinitade guziz-Santuko ezkutamen itzaltsuba; orobat jauna Aldareko Sakramentuan arkintzen dan bezela, bai ta ere askotan Ama-Birjiña guziz-Santa, zeñek, aitzuspe artan batez ere, nun ainbeste ordu gau ta egun pasatzen zituen, bisitatu zuen sarritan ikustaldi ederrakin, bai eta ere poz-atsegiñ eziñ esan-alakoakin ase ta bete. Eta aiñ klaru ta egitsuak ziraden agerkera oiek guztiyak bere-tzat, eze, esateraño allegatu zan; «*baldiñ Eskritura Sagraduko liburu danak galdu baziran ere, etzala izan-go ezer beretzat galdurik, eta berak dakarzkiguten egi edozeñen alde bere bizitza emateko prest zegoala txit*».

Agertu ziozkan orobat pilosofi edo egokindeko eta beste ezkutakizun eta ezaguera barrutuenetako asko; orniturik gañera bere doaiezko emaitzaekin, espiritu motai antz-eman ta igerritzeko, eta beste onelakoak; eta ori guzia añ argi ta garbi, ze gero zarzaroan ere esan oi zuen: «*Orduraño gerozkoan gure jaunak bere erruki-onez erakutsi ziona eta berak gero bere burutasun eta lanarekin zeruko gauzen gañean iritxi izan zuen ezaguera dana guzia batuta ere, etzala Cardoner-ibai ondoan eta Tort-guruzpean eserita jakiñ izan zuanera iristen*». (Ibai ori alabaña eta Tort izena duen gurutzea Manresa inguruan daude).

Baña an artutako mesede egundañoko ta andiyenetako bat izan zala dakigu zorzi egun osoko kordegabetze mirarizkoa, Santa Luziako gaixotokian zegoala gertatu zitzaiona, esanaz aoz atzenean esnaaturik goxo-goxo «*Ai, Jesus!*» izanik gertakizun onen gañean bere lagun eta leenengo Aita guzien iritzia, une artan Jainko gure Jaunak animaren begi-aurrean garbi ta zearo jarri ziozkala, berak ipiñi ta zuzendu bear zuen erlijioaren sortukizun, traza-modu, zertakotasun eta ekiñaldi gloriakoak; baita ere mundua mundu dan arte izan bear zituen seme-samalda andiyak, batzuek Santuen artean izendatuak, besteak gizonik bitore ta

argienetakoak, eta guztiyak bere Izen Santua gooratzeko ta azaltzeko, bere Esposa Elizaren ondra ta babesa berri irmerako, eta eziñ konta al anima salbatzeko.

Baña ontarte ori andienetakoa izandu ezpazan, konta dezagun beste bat goien-goienekotzat, ainbeste gizonen onerako eta aiñ iraunkor eta denpora luzekoa izan bear zuelako; au da gure Jaunak eta bere Ama Birjiña bedeinkatuak albistatzea, eta laguntzea ta eragitea Jardunbide Espirituzkoen liburu miragarriaren parterik geiena ta bikañena beintzat an bertan konpontzen eta zuzentzen; liburu onek alabañan zeruan diran izarrak baño anima geiago birtuteratu ta birtutean osotu, santutu eta zeruratu ditu, eta geiayago ta geiago aiñ bide on eragille ta seguruarekin munduaren ezkeneraño Jainkoak salbatuko dituela uste degu.

Bere bakardade sarrienetako aitzulo aretzaz gañera, lau etxek bata bestearen urrena Santuari ostatu emateko ditxa izan zuten. Lendabizi, esana dan bezela, Santa Luziako gaixotegiyan bizitza igaro zuen. Geroxeago pasa zan orobat Ines-Pascual berak eratu zion etxe ondradu batera. Gero berriz guztizko karidadez Aita Santo Domingokoak beren komentu edo bizi-

tokiyan euki zuten. Eta azkenik bizi izan zan, entero kristau onak ziraden senar-emazte batzuen etxe batean, eta oek eman zioten errukizko ostatu argatik, geratu zan senarra bere bizitza guztirako Simonen goitizen ondraduarekin, emaztea berriz Martarenarekiñ, adierazirik orrekin Simon legentsuak eta Lazaro-ren arreba Martak beren etxean Jesu-Kristo gure Jau-nari eman izan zioten arrera eta ostatua.

## 7.<sup>en</sup> BURUA

### Barcelonan

Amar illabete Manresan bere damukizun ta obra onetan igaro ondorean, Lur-Santuetarako erromeiari erasotzeko garaiya zuela noski pensatu zuen.

Barcelonanz irten zan bada; eta an ogei bat egun egin zituen, atez-ate eskean Jainkoaren amorez ematen ziotenarekin mantentzen zala; etzuen albañan bere ongille Ines Pascualen etxean gaba pasatze-ko ganbara baztertxo bat baizik artu nai izan.

Joan da laster, Eliza batean sermoia aitzen, ume artean aldare nausiko armallaetan jarrita zegoala, ikusi zuen Isabel Rosell zeritzaion emakume batek, arpegitik, ez oi diran bezelako argi-erraiñu batzuek zeriozkala, aiturik era berean bere barruan esaten zio-tela «*Ots eiozu; ots eiozu...*». Etzan artara ausarditu, baña bai arriturik jaikita gero, ikusi eta aitu zuena bere senarrari kontatzera joan. Bereala biyen partez gaztigatu zioten arren egun artan bere personaz aien etxea ondratuaz, diña zedilla berekiñ bazkaltzera joa-teaz. Modutasun egokian artara jarri zan; eta begira-mendu ederrean artu zuten maira, eta berak berriz

bazkal-ondoan alako espiritu ta berotasunarekin Jainko-gauzaen gañean erasota itz egin zien, eze bizitza guzirako oso beragana zaletuak geratu zitzaizkan, gizon santutzat zeukatela, batez ere andreak, zeña geiago bizi izandu zan.

Bazebillen oraiñdik eskean kaleetan barruna, itxasoz joateko bizkotxoarentzako adiña bildu artean beintzat, bada ori-gabe itxasoratu bear zuen ontziko Kapitanak etzuen iñola ere berekin eraman nai; eta orra nola alako egun batean, begiraturik ondo beste andre andizki batek arpegiz-arpegi ain argal eta baldrana zebillela, iruritu zitzaion nunbait ere eskale ark bere semearen antza zeukala, zeña beragandik iges egiñda jente gaixtoakiñ galduta zebillen batera bestera; eta berriturik ama-on bati bezela, bat batean bere barrunbe naigabetuaren atsekabe ta miñak, baita ere gañera bere griña ta asarre biziya, eraso zion Iñigo gureari galanki errietan eta gaizki-esaka ase ta bete arte; eta Ignazio geldi ta soseguz guztiak aitzen egon zitzaion, ematen ziozkala azkenean milla esker-eder, esanaz gañera eze, etzala iñortxo ere mundu onetan berak beziñ ederki, zan bezelakotzat, ezagutu zuenik. Aiñ uste-gabeko ukitzea andre aren biotzean egin zuten mansotasun, humiltasun eta begiramendu eziñ

pensa-alako aiek, eze beragan sarturik, ta susperturik, milla barkazio eskatu ziozkan, eta gutxik egin zuen nola oiñai muñ ematera auspeztu etzitzaion; baña ori egiñ ezpazuen ere, limosna galan bat eman zion, eta bere santutasuna nun-nai agitz adierazten zuela, egun artatik izandu zan aurrerakoan bere erakutsi-on eta ejenploetatik protxurik geiena atera izan zuten Barcelonako andre askoetatik bat.

Onen iori eta gozatsuak dirade eramankizun kristauzkoaren prutubak.



## 8.<sup>en</sup> BURUA

# Barcelonatik Erromarañoa

Andre oiek berak eta beste bere jainerako ongilleak ere bildu ta eratu zioten diru apur bat itxasoz Italiara joateko; ontziratutzean alabañan kaian laga zituen, entero asieratik Jaungoikoagan bakar bakarrik ipiñi zuen itxodomen oso sendoari akatsik ere ez egitearren.

Bost egun irrits eta ekaitz gogorren artean itxasoz eginda gero, orduban Españañoa zan Gaetako kaiyeen lur-artu zuen, eta ostatu bateko mandotegira lo egite-ra joan zan. Etzanda laxter emakume deadar ta karra-  
xiak aitu zituen. An dijoa arrapastaka, eta ikusirik soldadu likitx batzuek neskatxa gaixo bat galzera zijoa-zela, zelo santuz sutu eta beiñ batean, ezpata esku-ban zuela, kale oso bat bete jenderi iges-erazi zion aspaldiko ausardi hura beregan bizturik, deadarka, agiraka eta errieta bizian, iritxi zuen noizbait aiyek gaiztakeri artatik atzeratzea, geraturik arri ta zur-egi-ñik bezela gizon bakar arrotz eta pobre argatik, berak asko eta gazte frenu-gabeak izan arren ere, gertakizu-

na egiaz, inguramen guziei ondo begiratu ezkeru,  
mirari-modutzat euki leikeana.

## 9.<sup>en</sup> BURUA

# Erromatik Veneciarañokoa

Erromara itxirik, Aita Santu Adriano Vlri bedeinkazioa ta baimena eskatu ziozkan, eta Jesukristoren Piztuerako pesta egunetik zortzi, Veneciarontz oñez abiatu zan.

Pasaizoan eziñ esan-alako neke, gose, lan, beartasun eta gizonaren atsekaberik andienak eraman zituen bi arrazoigatik. Bata, bere pobretasun oso-oso; bada, Erroman bere erritarren batek zerbait diru eman bazion ere, irten orduko bereala beste beartasuen artean partitu zuen. Bestea izandu zan Italian sasoi artan zebillen izurri eriotzakorra, zerren, nola zekusten aiñ argala, kolore txarrekoa, ta erdi-jantziyan arabakia zeriola, danak beragandik igesi zebiltzan, izurritu batengandik bezela, eta etzuen topatzen erririk bera artu nai zuenik; eta ala, beti kanpoan eta euzkitan zegoan, eta gau askotan lo egin bearrean arkitu izan zan, lo albarezakean, inz artean kanpo zelai ta eremuetan otzminduba eta goseak pasatua.

Paduara eldu baño legua batzuek leenago, oso makal, ta bakar-bakarrik nundik nora jo etzekiela zebi-

llela, eseri zan, eta ikusi zuen bat-batetan bere begi-  
aurrean Jesukristo gure jauna, zeñek alaitu ta indartu  
zuen biguñkito txit, segurutzat adierazirik, batere era-  
gozpenik bage Paduan eta Venecian sartuko zala.

Ala gertatu zan: atearik kontuz ondo gorderik euki  
arren, iñork itzik esan gabe uri biyetan barruna sartu  
zan, eziñ ikusi zeikeana egiñ balu bezela Jaun maita-  
tsu berak, zeñ bereai beti premiarik andienetan  
laguntzera azaldu oi dan.

Veneciara iritxita, lenengo gabeen etzuen izan  
ostatu ta lotoki edo etzaintza oberik San Markos-  
plaza ondoko portaleetan zoru gogor edo lur gorriya  
baño. Bazan orduan uri ots-andiko artan Senadore  
argidotar ongille bat, Antonio Trebisano izena zuena,  
eta onek gabaren zerratuenean aitu zuen boz bat,  
esnaatuazi ta esaten ziona: *«Zer? Zu orren ondo esta-  
lita, ta oi biguñ ederrean lotan, eta nere serbitzaria lur  
gorriyan etzana, eta ots-garbi otzean, nork bere  
etxean artuko duenik ezdaukala?»*. Etzuen geiagoren  
bearrik izan. Janzitzen da bere-bereala eta irteten da  
argi ta morroiyaikin ezagunezaren billan, eta esan zio-  
ten eran topaturik, erregutzen dio itz gozatsu eder  
biotzezkoakin, arren jaiki zedilla andik, eta jarrai  
zegiola bere etxera; eta antxe Jainkozko gizaseme on

bati zor zitzaion begirunearekin ostatu eman zion. Eta nola Lur-Santuetara urteero bide-jarraileakin joan oizan ontzia irtena zan, eman zion eskubidea ango dukeak zaldun beraren bitartez, eraman zezaten kariatadez, eraentzalle edo gobernadore berria zeraman Kapitan-otzi berean Txipreko ugarteraño, zeña une artan Veneciatarrena zan, eta Palestiña baño leen arkitzen da.

# 10.<sup>en</sup> BURUA

## Jerusalenerontz ugarotutzen da

Ignazio zeraman ontziko itxas-jendea librea ta lotsagabea zan biziro. Eziñ ixilik eraman izan zituen aien erasoak; eta ala, erdi italianoz gaztelaniaz ta euskeraz dana naasi, asi zitzaien libretasun patxarakoenakin ta esanaldi latzakin arpegira eman eta errieta onak egiten. Nolatan ordea aiek ondo eraman? Eta zeñen kontra gaixtoak, eta oiei eragiten dien deabrua sututzen dira ainbeste, ezpada neurrira erakarri eta Jaungoikoaren ofensak galerazi nai dituztenen kontra? Sentitu ta erre ziran alako gizon koxkor batek beren buru balute bezela, eskura joan eta agindu naiko ote zielakoan; eta ala, alkar artu zuten Adriatiko-itxasoan arkitzen dan ugartetzar iñor gabeko batetik pasatzean, lagatzeko an bera bakar-bakarrik; bizitza kentzea bezelako gizatxarkeria alegiya. Izandu zan pasatzalle lagunuen bat gauza orren gañean zerbait esan, eta arren isilldu zedilla, ziona; Ignazio ordea sekula bildur gabeak eta are gutxiago Jainkoaren ondren

alde irteteko, etzion ezer kasorik egiñ, uste guzia bere guziasun eta begiramendu amorezkoan jarririk.

Eragin zioten alegiya itxas-gizon aiek urre-urrean zebiltzala ontziari ugartearen aldera, baña zenbat aldiz aurrerazi, anbat bider jaiki zitzairen kontrako aizea, eta aiñ gogorra, eze belak jirabiratzan zituen eta barrenak ya irauli ere bai, aien alegiñ guziak dese-giñik, eta bere gaizki-naiarekin eziñ irtenik; ala salbatu zuen Jaunak kanalla biotz-gogorreko aren atzaparretatik.

Txipretik Jope edo Jafarañoko itxasbidea ez da entero luzea; aldi artan albañan gaitza izandu zan, bada igaro zituen 48 egun gure bide-jarrailea artarako sartu zan beste ontzi batek, zeñean zijoan bera bezela Kristau-talde andi bat Leku Santuak beneratu eta agurtutzeko asmo Jainkozko eder berakin.

# 11.<sup>en</sup> BURUA

## Jerusalenera iritxitzen da

Jerusalen aldeko Jafa deritzan Siriako kai ondo aitatura allegatuta, lau egunera Uri Santuba begitandu zuten.

Nork esan gure ibillkari guziz jaierratsuen atsegiñ eta negar-malko gozoak, ango almenek eta torreak ikustean, ondorean berriz errenkada ederrean, oi zutenek, Erlijioso San Franziskokuak beraganatzean? Nork bere negar-malko erreten aiek, zeñakiñ Jaunaren pasio edo eramankizun eta piztuerako leku oroigarri aiek erregatuaz joan zan? Nork bere barrunbeko sinismen, esker-on eta amorezko biotz-beratasun eta ezitutasun hura, zeñarekin an egondu zan denpora guztian bere anima su ta gar bezela egiten zitzaion, eta gañera Jainko gure jaun Itsaltsuak an eman ziozkan gozotasun, ikustaldi eta erregaloak?

Ainbesteren artean bat aitatu dezagun.

Jesu-Kristo gure Jauna bere gloriako Igoeraren egunean zeruratu zan mendi Olibetetik beera bazijoan bigarren aldiz. Onetan komentuko morroi zegoan Armenitar andi ta izugarri bide-jarraileen kontua zedu-



kan bat berekin etzetorrela oartzen da; badijoakio bere billan astalka, eta besotik eldurik, gaizki esaka, ostikoka, bultzaka ta makillka asitzen zaio; era berean ordea ikusi zuen Ignaziok bere begi-aurrean Jesu-Kristo gure Jauna eta uste gabeko agertze amorezko hura aĩn gozo ta atsegiñ egin zitzaion eze, ez kolperik sentitu, eta ainbeste irañen ardurarik ezertxo ere izan etzuen.

Pozik noski geldituko zan antxe beti-betiko, edo beñepeĩn nun eta nola, Jaunak agintzen zuen bezala, lagundi edo Konpaniaren moldakizuna bukatzeko denpora iritxi arte. Baña sei asteren ondorean, San Franziskuko probinzial, artarako eskubidea zuenaren manuz edo aginduz irten bearra izan zuen, beste bide-jarraileakin batean, eta itxasoz berriz Veneciara biurtzeari ekiñ. Txipretik ara joateko garaian, bi ontzi orduantxe eskuratu zitzaizten. Bata, Veneciatarra, galanta, ondo kalafetatua, zeñean buru egiten zue-nak, gizon biotz gogorrekoak bezela, ez beartsua, ez santua zalakoan, iñolaz beragan artu nai izan etzuen, esanaz gañera donarioz: «Santuba bazan, erropa uretara bota ta gañean ugarotzeko, eta ala itxasoa pasa zezala».

Egundaño esan ez balu obe. Itxasoratu orduko, aurrenengo egun beraren eguzkia sartu baño leen, olatuak asarratzen abiatu ziran, eta bereala jaiki zan aize bolada-izugarri batekin ostera su ta salda egiñik, ontziari atzera eragin zioten, eta ugarte beraren aitzetan printzatu eta purrkatu zuten, bakarrik pasajeroak mirariz salbatzen ziradela.

Beste onzi-jaunak artu zuen karidadez Ignazio gajoa berean; eta barku txiki zar hura moldakaitza bazan ere, igaro zan okerrik bage azkenean Venecia-ra 1524en urtearen asieran.

Leorrera zanean, aurrenengo lanbidea izandu zuen, karta batean zearo eta garbi Leku-Santuetan ikusitako gauza guzien gañean Ines Pascuali kontu ematea; bere ongilleakganako beti izandu zuen esker-ontasunaren siñale agiria, biotzaldirik nobleenekoa, eta betiko bere oñordekoai bere Lagundian utzi ziena.

## **12.<sup>en</sup> BURUA**

# **Veneciatik Barcelonara biurtzen da**

Neguaeren biyotzean, eta Italiako Ifar-aldetik barruna, zeña denporaldi artan otzenetakoa izan oi dan, oñez gañera eta eskean, Veneciatik Genova-bitarteko bide guzia eziñkonta alako nekeakin ibilli zan.

Ferrarako Eliza batean, usaira bezela bereganatu zitzaion pobre-samalda andi bati, ongille baten erreguz Veneciatik irtetean artu zuen diru puxka eman ondorean; bide artan gertatu zitzaion kontagarriena izandu zan eze, nola garai artan alderdi aetan España despita gogorrean Pranzasakin zebillen, España-tar soldadu talde edo prestegoitz baten eskuetara uste-kabea iritxi zan, zeñak aiñ arlotea ikusi zutenean, izpi ta salaritzat arturik, arabakiak astindu ta ondo begiratu zioten, eta beren agintari edo Kapitana-gana eraman zuten. Nola ordea papeltxo bat ere billatu etzioten, eta egiten ziozkaten galderai itz banakaren bat edo besterekin baizik eranzuten etzien, agintariak soldaduai burugabetzar hura ala erakarri ziotelako,

errieta eman zien; orregatik aiek, ordañez bezela, bere gaiñ amorru guzia sutu zuten, egitez eta itzez entero gaizki tratatzen zutela: baña irañ eta eraman-kizun ark txit asko alaitu zuen, zerren bitarte artan bertan gure Erredimitzalle Jaunaren oñaze ta naigabeak bere biotz eta adimentuan egotziak zerabiltzkien.

Libratuta bereala, topo-egin zuen berriz pranzasamalda aurrerati batzuekin; baña Gipuzkoatarra zala bere agintariari adierazorik, bada hura ere an urrekoa eta euskalduna nunbait ere zan, etzioten neke ta arrastaka geiagorik ezer eman; eta bere bideari zuzen Genovaraño jarraitu zion, nundikan gero Españatar ontzi batean ugarotu zan, 1525garren urteko garizuman ederki Barcelonara iritxitzen zala.

## **13.<sup>en</sup> BURUA**

# **Bigarren denboraldi onetako bere bertuterik garaiyenak**

Geiago ta geiago azalten aitu gerade oraiñdañokotan gizon portitz ta bulartsu, ta gure Erljio Santaren gudari ta lenendari onen argi-errañu santutasunezkoak; bere kemen eziñ-garaikorra, bere megope edo espiritu pobretasunik osoenetakoa, seme baten erako uste ta piatzea Jainkoaren letarta edo begirakizunean, Jesu-Kristo gure Salbatzalleaganako amore irazakia, eta onen pausoai orpoz orpo bere banderape sagra-duan goieneko soldadutza-mallan aurrena sigitzeko eresi eragillea, bere soñeko ta librea beraz jantzirik; gero Santuak berak urte batzuen epean bereetakoai karta edo eskuzkribu sonatu batean esan izandu zien bezela.

Eta bere bertute argien artean lendabiziko tokia zeñi eman bearko zaion adieraztea erraza ez bada ere, eta berriro animen onerako eta Jainkoaren ondrraren alde egiñ zuena mintzatu gabe, batez ere portizki pekatuak galerazi ta kendurik, bada gai onetan, leen

ikusien genduen eran, erakutsi eder miragarriak eman zizkigun, naikoa litzakealarik guzien artean Gaetan ugarotu zan arako gau ospatsu artako hura aitatzea; badirudi eze garai onetatik aurrera beregan gañezka bezela egiñik agiri dala otoitz edo *orazioko* doai txit berezi hura, eta Jaungoikoarekin adiskidetza ta kutuntasunik andienarekin tratatzea, gauza au alegiya azkeneraño txit bere ta berezkoa izan zuen; jakiña da alabañan *jaiera* ta *obeditzea* (bere bertuteetan orobat garaiena) diotela santuak bi ego urrezko diradela Zerura igotzeko.

Bat bera aitortzen dute bere bizitzaren itzkribulariak, iru izendatuenak batez ere, Ribadeneira, Maffei ta Bartoli deritzotenak, esanaz eze, Jaunak bere argiarekin animako begiak zabaldu zizkionetik, *otoitzerako* arretarik berezi ta andiena iduki zuela, orazio ori gero berak *gomuntatzerik* goienekoraño jasotzen ziola; etzuela egundaño zerbait balio zuen egitekorik erabaki, otoitzean aurrena Jaungoikoarekiñ tratatu gabe, batez ere Lagundiko zuzenbideak konpontzen ziar duen bitartean; langai arreta andikoren batek eragozten ez bazion, ordu txo bat ere etzuela igarotzen, bera ganatu bagerik, eta txit barrunbeko birtute aldi biguñakin biotza Jauna-ganatu bagetanik; edozer gauza

naiz loretxo edo arrik txikiena ikusteak ere oñ da bide ematen ziola goituzeko, eta on guzien Ona danaren pensakizun amore ta alabantzaldietan ugoldetu ta asetzeko; Erliziozko egite danik labur da txikienetan ere, ainbeste barrunbetzen zala, ze Jainko itsaltsua bera aurrean ikusten zuela zirudien, eta arpegia sugar da txingar bizi bat egiña jartzen zitzaion; otsik eta danbatekorik andienak ere, berak biderik eman ezpazuen utsegitez edo faltaz, etzutela otoitzetik bulzatzten eta alderazitzen; erregutzen zuela beti Aita Santu eta Elizako Apaiz-nagusi, errege, lenendari eta Kristau-agiñtariakgatik, bada aien eskuetan Elizaren gubernua eta doatsutasuna dagoala, txit ederki zekien; ainbesteko atsegintasun zeruzkoak eta negarmalko-iturri gozoak, ordendu ta bereala izan zituela, eze begiyak galtzeko zoriyan egondu zala; sinistatze-  
ra allegatu zala ezikan etzala izango iñor gizonik lurra-  
ren gañean beragan bezela bi gauza oek alkartzen zituenik, bere aldetik ainbeste oker Jainkoa-ganako, ta onen eskutik berriz berak aiñ orduoroko mesede ugar-  
iak artzea; bere Jabearekin iduki zuen tratu kutun eta adiskidetza gozoa iritxi zala gauza guzietan Jaungoi-  
koaren borondatea baizik ez idukitzera; eta azkenik, jainkoarekin alkar ikustearren, gorputzeko presondegi

onetatik irteteko zeukan eresia aiñ irazakia zala, ze eriotzean pensatzearekin bakarrik, eziñ esan alako atsegiñez ase ta betea geratu oi zan, bere begi-ertze-tatik beera orduero txirrian zeriozkan malko-tanto labañak eziñ geldiazirik.

Ordea arestian ikusi degun otoitzezko espiritu aiñ miragarriz apaiñdua egon arren, ildura edo mortifikatzeari geiago begiraten ta kaso egiten zion, hura onen alkartasun leiala bage legezkotzat etzedukalako, bada biyak anaiatasun egokian bat-egiñak ibilli bear dute espirituzko bizikizunean. Bañan gorputzeko miñduratzeak balio gutxian ez baseduzkan ere, askoz geiago maite zuen damukizun edo biotzeko ildura, zeña, txit jakiña dan bezela, sentidu ta aragizko griña okerrak ta gurari biurriyak azpiratzen eta neurritz erabilten dagoan, eta bakoitzak bere buruaganako amoreta garaitzen, eta agintari edo gidari ditugunai gereiritzi ta naitasuna menderatzen. Orregatik noski sarritan bereetakoi esan oi zien: *vince te ipsum; mendera zazu zere burua*; bada beragan ondo ikasia zeukan zeñ egi protxugarrienetakoa dan Tomas Kempis Benegarariaren esankizun hura, eze bakoitzak bere buruari gogor egiten dionez neurritzen dala gizonaren aurreratzea. Eta, nor Kristauk ez daki izan-ere Jaunak



Ebanjelioan diona? *Zeruetako erresuma indarka artzen da, eta indarzaleak bera arrapatzen dute; argi ta zearo adierazo naiaz, izan bear geradela, salbatu gaitzen, kementsuak, ausarditsuak, eta Jaungoikoaren morrontza edo serbitzuan eta gere griñaen bridatze ta menderatzean iraunkorrak.*

## **IRUGARREN PARTEA**

**San Inazio ikasten asi zanetik,  
Jesusen Lagundia sortuazi  
zuen arterañoakoa,  
edo orobat  
1524-garren urtetik  
1540 garrenerañoakoa**

# 1go BURUA

## Barcelonan

Bazetorren Ignazio Jerusalendik Jainkoari anima asko irabazten oso murgiltzeko eresi biziarekin; eza-guturik ordean ikasikizun onik bage eraso zalla dala hura eta prutuba ere eskaxa, erabakita zetorren orobat bertatik ikastera jartzeko, latiñezko itzkuntzaren asieratik ekinda, orduban bertan ogeita amairu urteetan sartua bazan ere.

Billatu zuen bada gramatika erakusten ziarduan maixu bat, umeen artean ume egiñ, bere leziyoa ikasita eraman, ta buruz besteakiñ batean emateari ezerasko begiratu bagerik.

Bañan ordea, berbo edo adititzen lenengo erabidera, iritxi zan beziñ laster antz-iduri atsegintsu gozobat zerakarkion asmakizun ezkutu batekin etsaiak engañatu nai izan zuen, eta au zan, lilluratuta bezela denboraldi luzeetan egonerazitzea, esanaz: «*amatzen det, amatzen dezu, amatzen du, amatzen degu, amatzen dezute, amatzen dute*»; eta berriz ori bera, aurre-ra pasa gabe eta ezertxo geiago ikasi gabe.

Orrela egun batzuetan arri ta zurtua egondu zan, alik eta atzenean noizbait ere, Luziferren tranpa azkarak ezaguturik, bere maixuagana korrika joan zan arte, eta oni belaunbikaturik, ta alegiñez humiltasunik andienarekin erregutu zion eze, arren lezioa ondo ikasiya etzeramakion edozeiñ egunetan, ezeren begiramentu ta errukirik gabe narrugorritu ta azotez edo irizillez zeatu zezala mutill koskor guzien aurrean.

Onenbesteraño al dezake gizon justuetan lagunurkoaganako onginei protxugarriak, eta itz batean, Jainkoaren gloriarekiko zeloak. Etzan geiagorik bear izan, etsaiaren tranpa ta asmaaldi hura ordutik betiko desegiña utzitzeko.

Abiatu zan geroxeago barreatutzen bere santutasunaren otsa, eta batez ere andizkietako andre batzuek begiramendu andia zioten, bere konseju ta esan-onai jarraiturik. Kontrara ordea beste gazte bizi-tza lasaiko batzuek, gizatxarkeri pixuenetakoak egi-ten ziozkaten, zerekin merezi-asko eta zer-eraman ez gutxi alegia ematen ziotela. Oetako batzuek joan oi ziran sarritan, Aingeruena zeritzan komentura, zeña uritik kanporonz zegoan orduan; eta an izketa alegrean mojaekin ordu osoak parrez eta algaraz itztokiy-yan igarotzen zituzten. Ignazio au jakitera allegatu

zan, erlijiosai menaz itzekin ziyen; eta atzenik ainbesteraño egin zuen, eze, andik aurrera gazte aiei sarre-  
ra ukatzea iritxi zuen; eta ala okerbide hura bukatu  
zan. Aiek alabañan, suta-gar egiñik, batez-ere Erribe-  
ra zeritzan beretako nausiena, mairutzat indartsu bati  
ondo pagatu zioten, zeñek Ignaziori alde artatik pasa  
zediñ itxodon zion, eta makillaekin aiñ gogor ta ain-  
besteraño elbarritu zuen eze, illa zalakoan, bere odo-  
lez lurra putzu egiñik, utzi zuen. Berrogeita geiago  
egunean, min oñaze gogorrenetakoak eramanik, zauri  
aietatik sendatzen oiratua egondu zan, Jainkoari arga-  
tik, mesederik berezienagatik bezela eskerrak ema-  
nik, gaizkillen alde erreguturik, eta ezagutzen bazi-  
tuen ere, iñori zeñ da zeñ ziradenik aitatu bagetanik.  
Berriro oñen gañean abiatu orduko, iñortxogatik ajola-  
rik gabe, berriz beren asmo onetan erlijiosak sendotu  
zituen. Arritu zan Erribera alako biotz-anditasunaz, eta  
era berean eziñ geiagoan karidade aiñ aundia estima-  
turik, bere errua ezagutu zuen, ta oso damuturik, san-  
tuari barkazio eskatu zion, zeñek itz gozatsuakin  
eman zion bertatik eta gustorik onenarekin, biotzez  
leendanik barkatua zeukanak bezela.

Bazetorren beste batean eskolatik, eta alde bate-  
ra asko korrika zijoazela ikusirik, jende-boladari segitu

zion eta ikusi zuen eze, hura guzia, Lizano zeritzan batek une artan bertan bere etxean bere burua urkatu zuelako, zala. Patu artzaz oso errukiturik, biotzez eta menaz aregatik Jainkoari erregutzen jarri zan. Gauza miragarria! Bereganatzen da andik pixka-batera gizon hura, damu-siñaleak ematen ditu, konpesio edo pekatuen aitortzea eskatzen du, eta berriro iltzen da, askok deadarka ziotela *mirariya! mirariya!* Batzuek gerozkoan zalan zan jarri zuten egiazko piztuera izandu zan edo ez; AA. Bolandotarrak ordea oi duten burutasun eta kontuarekin gertaerari begiraturik, baiezkotzat sinistatzera jarri ziraden. Duda eziñ leikean gauza da beinzat, neurri oituaz gañerako graziren batekin errukitu zala Jauna doakabe arzaz, eta ustez bere serbitzari Iñazioren erregu biziakgatik salbatu zuela.

la urte bi Gramatika ikasten Barcelonan egondutan, ostatur beti bere ongille Isabel Cordonerskaean zegoanaren etxean arkitzen zala, beste persona askotxok egunero bear zuen jatekoa limosnaz geienean ematen bazioten ere. Bazuen Isabelek Juan zeritzan seme bat, zeñek bere zarzaroan etxekoai gure Santuaren gauza miragarriak kontatu oi ziezten, beste gertaera askoren artean ziolarik eze, humetan sarri

ate-zirrikatik begiraturik orazio edo otoitzeko denboran, lurretik gorunz altxatua ikusten zuela, eta arpegitik argi-errañuak botatzen zituela. Esan ziozkan aldearez bat-banaka bere bizitza luze guztiko gerta-kizun on eta kontrako dan danak; eta malko gozoak txirrian zeriozkala akabatu oi zuen berai esanaz: «Jainkoaren gizon ark bere oiñ eta ukitzearekin santutu zituen ladrillu ta orma aieri begiramendu ta jaierrarik andienarekin muñ-eman bearrean arkitzen ziradela».

## **2.<sup>en</sup> BURUA**

### **Alcala Henareskoan**

Gramatika latinezkoan pijo jarri zan ezkerro, ego-kinde edo pilosofi-jankintzari ekiteko garaia zuen, eta uste onekiñ 1526ko Abuztuban Alcala Henareskora pasatu zan.

Sarreran Jainkoak begi-aurrean topo-eragin zion aurrenengoa izan du zan Martin Olave Vitorian jaioa, euskaldun erakasle ots-andikoa, urteak igarota gero, Erroman bere bizilegea artu zuena, eta zuen burutasun, biotz-on ta jakintzagatik santu sortulari edo fundatzalleak berak merezi bezela ta adiña maitatu zuena; bada doai baliozko oiek edozeiñ gizonetan, eta are geiago, bereetan arkitzeak begita-biotz beti lilluratu zuen.

Igarorik geroxeago Barcelonan inguratu zitzaizkan lau-lagunak, al zuen moduban pobre-txamar bazan ere akomodatu zituen, bera juanik bizitzera hospital-Antezanako gelatxo batera; ta an abiatu zan bereala jarduntza-santu edo ejerzizioak persona askori ematen, ta asmakizun santu onekin, itzaldi jainkozko sutuakin, eta guziaz gañera bere-prestutasun eziñ



obeagoaren argiarekin ikaslari gazte askotxo eta andizkietako ez gutxi birtuteko bidean sartuerazi zituen. Ez da ixiltzekoa emen oietako persona itzaltsu batekiñ egiñ zuena.

Eliza-gizonetakoa zan person hura, baña alaere bizimodurik txit zabarrenetakoa zeukana; sartzen zaio bada illunabar batean bere bizitokira ausardi ederrean, eta itz-egiten dio garbi-garbi ta zearo bere bizitza txarraren gañean, eta lenbaitlen zuzendu ta obetzeko zeñ premi andian arkitzen zan; su-ta salda egiten zaio gizona bereala; ta asarre bizian deadarka abiaturik, bazirudien bere gaiñ etxekoai ezbearren bat eragitera zijoala; baña azkenean ere Ignaziok zeukan eta bere onerako ziarden malsotasun ta sosegutasunaz bigundurik, eta ainbesterañoko karidadeaz izuikaraturik, polliki polliki asarreak eskuratuta, bildotx baten antzera humildu zitzaion, edo obeto esateko, Jainkoagana menderatu zan, eta egin ziona izandu zan berekin apalduazi ta begirunerik andienarekin apalondoan agindu zien bere mirabeai argiyakin kalera-artean laguntzeko; eta ordutik lagun eta adiskiderik obenezat eduki zuen. Zeñ egiya dan karidadeak eta eztiyak ukitzen duten guzia gozotzen dutela!

Oiek eta oien antzeko beste obra on askok irabazi zioten erri guziagan gizon Apostoluen-gisako baten pama ta izena; eziñ izan zuen ordea au etsai gaixtoak ongi eraman; eta orra nun egiten ari zan prutuba eldu ta ioritu etzediñ eta ezartzeko gañera kolperik segu-ruena parterik bizienean, Eliza-gizon batzuegaz balia- tu zan, zeñak anbat engañatuak bazebiltzan ere asmorik zuzen eta ederrenarekin, uriko Bikario jauna- ren aurrean salatu zuten, adierazorik eze gaztedi guzia irabiatzen zuela, eta zorzitik zorzira Sakramen- tuak ar zitzan azoratzen zuela; gauza bat alegiya orduraño ikusi etzutena. Iru bider asita utzi zuten auzialdi au santuak iñor bere alde ateratzerik nai etzuela; jueza ordea beti libre ta ontzat eman bea- rrean arkitzen zan, ta bere erakuste ta eginkizunetan tatxarik gabeko gizontzat, eta batez ere juduzalea zala norbaitzuek eransi ziotelako, bada onen gañean ere Tolodeko inkisizio edo fedazaitzan salatu zuten, eta orobat beste gaixtakeri-itxura bat ezarri zioten. Au izandu zan eze Maria Vadorena eta Luisa Velazquez beneragarria ama-alaba itxura oneko, ta bere ongi- lleai konsejatu ziela ta jarri zituela Ama Birjiña Guada- lupeko Jaengo Veronica, eta beste santutegietara erromeian bakarrik ta oñez joan zitezen, eta gaixote-

gi edo hospitaletan serbituaz eta beragatik beren honestasunaren perillarekin; au guzia ordean gezurra besterik etzan, eta berak aitortu zuten egiya andik berrogei bat egunera Jaendik biurtu ziradenean, ziotelarik kontrara oso gertatu zala; zerren berarekin joatearen gañean tratatu zutenean, arrazoi asko eman zietela ez arren kanporatzeko, berak ordean etzietela kasorik egin. Denboraldi dan artan alabañan presondegian eukierazi zuen bikarioak zergatikan ordea esan gabe, alik eta 1527ko Garagar illaren batean libretzat utzi zuen arte, aitorturik gañera ezarri zizkioten esan eta eginbide txarretan kulparen izpirik etzuela; alaz guziaz ere, bere janzimodua aldatu ta truka zezala agindu zion. Baña nola etzeukan zeraman janziya baik, Juan Luzena zeritzan auzoko lagun on bat erakarri zion, arekin batean limosna eskaturik, beste berri bat eragin zezan. On Lope Mendozakoaren etxe aurrera iritxi ziraden pillota-jokuari zaldun zeinbatzuek an ziarduten unean bertan, eta Lucena beartsuarentzat zerbait aiei eskatzen ari zala, su-ta-gar egiñik esan zion On Lopek: Zer?... Zu zaituguna izanik, orrelako gizon baten lagun zabilta?... *Erreta ill nadilla ni orrek sutan gixkaltzea merezi ezpadu.* Jainkoaren epai ika-ragarria!... Aurki bere madarikazioak arrapatu zuen;

bada argi ta su bolborazkoak andik geroxeago errege-  
seme On Feliperen jaiotza-pestaetan berak bere etxe-  
ko dorre edo begiratokian ipinten ziarduela, txinparta-  
txo batek bolbora-pillara salto-egian, eta onek oso erre-  
ta gixkaldu zuen, eta andik bereala biziya kendu ere  
bai.

Agindu ere baziyon Bikario jaun berak Ignaziori  
etzezala kristau-dotriña erakutsi, eta ez agirian espiri-  
tuzko gauzen gañean itzegiteko alik eta iru urtean  
beñepein Jainkokinde eta Teolojiya ikasi artean.

Auxe zan alegiya bere zeloarentzat, egoak ebagi-  
tzea bezela eta ori ikusirik, persona on aundizki batek  
esan zionera jarririk, Salamankara an bere ikasikizu-  
nak segitzera joan zan, nora 1527 urte beraren atze-  
nengo illetan iritxi zan, urtetxo bat eta geixeago Alca-  
lan bizi izandurik.

### 3.<sup>en</sup> BURUA

## Salamancan

Denbora aietan ainbeste ikasle zeuzkan Salamanca ikasitoki edo ikasola aña izendatuan ikusi zanean, leengo bizimodura jarri zan bereala, eta leen bezelako protxu ta frutubarekin; baña beragatik andik egun gitxi barru Alcalakoa aña edo are andiagoko esesi edo persekuzio bat sortu zitzaion.

San Estebango komentuko A. dominiku bat bere konpesoretzat artu zuan; eta alako egun batean esan zion eze, bere lagun edo pralleak, oi zuten eran, berrari espirituko gauzen gañean mintzatzen aditzeko eresi andiarekin zeudela, eta artara jartzen bazan (jarri ere zan bezela) ondo prestatuba joan zedilla, zerren milla galde ta erdi egingo ziozkaten. Eramaten dute bada aietako zenbaitzuek eta eien artean Bikario jauna aurrena, berekin aparte kapillatxo batera, eta onek, lenengo bere bizitza-modu eta apostoluen antzeko zeloa itzez-goiturik, galdetzen diyo zer ikasi-lanak zeduzkan egiñak ordurañoan. Aitortu zituen Ignaziok tolesgabe zekizkien letra eskaxak, eta orduan dio Bikarioak: *Nola bada predikatzeraz ausarditzen zera?*

*Aita, eranzun zuen Ignaziok, guk egiten deguna ez da predikatzea, ezpada alkarrekiñ eguneroko izketan Jainko-gauzen gañean tolesgabe datorkigun eran jardutea. Eta zer dira diozkatzun Jainkozko gauza oiek? erlijioso ark berriro galdetu zion, eta Ignaziok eranzun: birtuteai jarraitu eta griña-gaixtoai gogor-egitearen gañeko gauzak; Gai ori, zion berriro, Jainkokindeko barrutuenetakoa da. Ori zuk ez dezula ikasi diozu: orduan Espiritu-Santuaren erakutsibidez dakizu eta orra auxe da jakiñ nai deguna; ia nolatan Megope-Santuak erakutsi ote dizun.*

Itxumustuko ateraldi ta arrazoi-modu berri ta mee ustekabeko arekin izutu-txamarra geratu zan Ignaziyo, eta bereala itz oek bakarrak eranzun ziozkan: *asko da Aita; ez geiyago onetan neri itandu.* Eta bikarioak berriz eraso bazion ere, itz oek ezpada beste atzerakorik etzion eman: *ez uste nik geiago esango dedanik, agindu al dezakedanak artara beartze ez banau.* Ori ere badegu? esan zion oraindik Domingotarrak, *hereje edo fedeauslez betea daukagu munduba, eta, ez diguzu zuk azaldu nai erakusten zabiltzana?...*

Onetan ziardutela, ara nun dan bertan Barcelonan Jainkoarentzat irabazi zituben lau lagunetatik bat Calisto zeritzana. Altu, plaku, me, dar luze-luze bat

zan gazte au eta ez aiñ moldaltsu ta planta ederrekoa ere; bordoia gañera eskuban, jupoi edo txamarra motx bat eta sonbrailu egal-zabal andi bat zekarz-kien. Prailleak parrez eziñ egon ziran, eta galdetu zion bikarioak, *ze janzi dira oek?... Eskusatu zitzaion Santua modurik al-zuen egokienean bere pobretasunarekiñ, baña erlijioso ark lengo bereari jarraiturik, esan zien: *zaudete egon emen pixkatxo bat; laxter egiya esan-erazoko dizuegu*. Biyak kapillan gelditu ziran, eta bertatik, kale aldeko ateaq ondo itxita gela batera aldatu zituzten, nun ederki gordeak iru egunean egon ziran, bitarte artan arrotz aien espiritu ta bizimoduaren gañean batzuek alde eta besteak kontra komentuko prailleak zebiltzalarik.*

Gaztigaturik gero Apaiz-nagusi jaunaren probisoreari, aren aginduz karzelako lekurik txarrenera eraman zituzten, nun lotu zituzten ostera, beren oñ bakoitza kate batean sarturik. An zeudela joan zitzaiyetzen errukiturik ikustera persona on asko, edo baita ere beren dotriña eder ta esan onak aditu ta artutze-ko eresi bete-betean; ta oen arteko bat izandu zan On Francisco Mendozakoa, geroagoan Burgosko Arzobispo edo Apezpiku-nagusi eta Eliza Ama Santako Karde-nal izan zana, zeñi, galdetua egun batean errukimen-

tuz, ea preso ta kateatuba zegoala ikusirik, pena asko sentitzen zuen, eranzun zion: *orren kaltetsua deizkio gizon bat onla egotea?... Ara, Jauna, nik berorri diodana da eze, ez dirala ainbeste zepo ta kate Salamanca guzian, zeñetan eta geiagotan ere Jesu-Kristo nere Jaunaren amorez katibatuta neroni ikustea biziro eta oparo naiko ez nukean.*

Auzi-beargai onetan bikarioa ta beste iru juez arkitu ziran, laurak personak itzaltsu eta eskudunak, zeñak ejerzizio edo jarduntza santuetako liburua arretaz ikusi ta ondo aztertu edo esaminatu zuten; eta agindu zioten beren aurrean gure Erljio santako sinistagairik bearrenak, eta Jainakoaren legeko aurrenengo agintea itzez-azaldu zitzala; eta aiñ goiro ederki-ta-egoki egiñ zuen, ze itzerditxo baten ere zer esatekorik arkitu etzioten.

Auzi-kontu au laburtu ta akaba zediñ laxterrago, etzuen noski gutxi lagundu gau batean karzelan gertatu zanak; bada preso zeuden guztiyak presondegitik gabaz igas egiñik eta ateaq parez-pare irikirik zeudela, bakarrik santua ta bere lagun bi presoetakoak barruan gordelari batzuek bezela arkitu zituzten goizean; eta gertaera au izandu zan uri guztiya arriturik ta eder-iritzirik utzi zuena.



Ala azkenik ere ogeita bi egun pasata erabakiera eman zuten, guzian garbi ta libre, Alcalan bezela, geldi zitezela, irteteko agindurik eta bakarrik aditzera emanik, etzitezela arren orduan beintzat, pekatu illgarrri edo mortal eta benial edo ez-illkorra zertan berezitzen diran erakusten ibilli; bada ejerzizioen parte batean gai au pixka bat santuak ukitzen du, pensamentuzko pekatuen gañean itzegitean.

Ezagutu zuen alabañan Ignaziok ainbeste kontrako ta eragozpen klaruren artean etzuela nai nunbait ere Jainkoak segi zezan geiago an Salamancan; eta erabakirik zegoala Parisko ikasola edo unibersidadera pasatzeko, zeña denbora aietan kristandade guzikoiikasi-lekurik ospatsuena zan jakinbide sagraduetan, alkar jarri zan bere lagunakin ara joanda otsegingo ziela, danak an beraganatzeko, zerekin bizi ta pasa guztientzat arkintzen zuen bezaiñ laxter; eta Barcelona alderonz abiatu zan, astotxo batean beretzako jaki eskaxen bat, eta bere ikasikizunetako paper-samaldatxo batzuek zeramazkiela.

## 4.<sup>en</sup> BURUA

### Parisen

Bildu zuen Barcelonan zerbait bere bide luze ta irrikkuz betean obeto jarraitzeko, batez ere artan laguntzen ziola bere ongille Isabel Rosellek; eta asko ta askok garai artako España ta Francia arteko gerragatik, eta ziotenez soldadu francesak Españatarrai ezbear ta txarkeri izugarriak egiten ziozkeelako, alegiñ naikoa egiten zioten irten etzediñ arren denbora puska batean; baña geldi erazo nai guzia alperrik izandu zan; eta Jainkoak lagundu ere zion eragozmen eta okerragorik ezertxo bage, urrengo urte ogeita zorziko Otsaillaren biyan Parixen arki zediñ, santuak berak Ines Pascual beste bere ongille andiari itzkribatu zion bezela.

Bi gauza txit bearrak zituela bertatik igarri eta ezagutu zuen bere ikasikizunai bukaera ona emateko; animaenganako zeukan zeloari, geroz geiagoa ta obea izan zediñ, orduan egoak pixka bat moztea; eta arterañokoan baño obeto bere ikasigaiak aurrerako zuzentzea. Alcalan zegoala, bete betean lagun-urkoen salbazioko eginkizunetara emanaz gañera, lenbaitlen

akaberako mugaraño iritxitzearren, era-berean jakinde asko eskuratu nai izan zituen, Sumulak, Izetakindi edo Fisika, eta Teoloji edo Jainkokindeari batean ekin; eta ala gutxi aurreratu zan, zerren dana batean artu nai dutenak esku-utsean gelditu oi diran, gaurko egunean bertan ikasola izendatuetan dabilten askori gertatzen zaien bezela.

Lendabizi alabañan, latinean eta jakin-maneeetan Monte-agudoko erakastegian berriutu eta irmetu zan. Santa Barbarakoan egokinde edo Filosofiako jakitekoak akabatu zituen; ikasolan urte ta erdi Teoloji edo Jainkokindea ikasi zuen, et-osteronzekoa atzenik Aita Santo Domingo-enekoakin. Arteetan maisu ta lizenziadu egiñik 1535 urtearen buruan bere ikasi-lan guztia-ri buruzpide ederra eman zion.

Biraldu izan zioten bere ongille Barcelonakoak denboraldi pixka batean zerekin bear bezela bizitzeko aña diru; zeña guzia gordetzeko zeukan Españatar gazte batek beretzat artuta, Parixtik kanpora iges egiñ zion; arkiturik onela Iñigo gurea eskean berriro abiatzeko zorian eta Santiagoko gaixotegian, neke galantarekin ordea, ikasi-tokietatik urruti zegoalako, etxeleorra billatu bearrean. Orregatik persona zintzo baten onesanari segiturik, juaten zan urteoro orduan Espa-

ñarenak ziraden Flandesko uri jendetsu Brujas ta Anvereskora, aldi bakoitzean urrengo urte-aldirako bear adiña, leku aietan tratuban zebiltzan Españako merkatari askogandik biltzen zuela; eta onetarako ere beiñ batean Ingalaterran izandu zan; ala ere, atzene-ko urtetan bera berez eske juan gabetanik, mesedegilleak zeguan tokira bear zuena bialdutzen zioten.

Beiñ Brujasen bazkalondo batean itz-egiten ari zala, aitu zion Valenciatar Luis Vives izentsuak eta Ina-ziok aldegin zuen beziñ laister, esan zien arriturik besteai, aiñ espiritu andi ta altuko gizon batek ezin zezakeala gutxiagorik, ezpada Jainkoaren Elizaren alde Erlijio berriren bat sortuerazi ta moldatzea. Eta orobat klaru-asko aldearez esan zion Anveresen Medina Campoko merkatari Pedro Cuadradori santuak berak, adierazorik eze, denbora pasarik, bere errian egiñeraziko zuela arena izan bear zuen Erlijioaren kolejio edo alkartegi bat, egiztatu zuen bezala berak andik urte askora bere ta emazte Francisca Mangaren ondasunakin. Ez dator ongi asmakinde edo profezi aiñ erabaki onekiñ A. Pedro Ribadeneirakoak aitatzen duena, dionean, erlijio oso zuzen etzebillen batean edo zuzentzeagatik edo an zer eraman asko eukitzearren sartze-ko asmoetan ibilli zala; nun eta kondairatzalle onek ori

Manresako zentzusteak baño leenagoko asmo ta usteak adierazotzeko esan etzuen, edo baita ere anbat orrela obeto bere gogoak ezkutatzeko, santuak beraiz besteai alako itzerdiren batzuek zabaltzen laga ta utzi zien.

Etzuen Parixen egun bat ere pasa sekula mezarik enzun gabe, ezta iganderik ere konpesatu ta komulgatu bage, eta bi aldiz egunero animaren barrunbeak aztertutzen edo esamiñatzen zituen, izanik lanbide au danik estimagarriena beretzat; bada ispillu bat bezela degu konzienziya, eta sarritan bertan begiratzen danak errex kentzen ditu egotzitzen zaizkan nabarmen da palta mota guziak. Bañan bere ikasikizunetara kemen osoarekin eman zediñ, otoitz egite luzeak eta gorputzeko zeatutze ildurazkoak neurritu zituen ondo denboraldi artan; balio geiagoko obra egiten zuen ordea, uri-buru artan sartzen asi zidaren hereje Luterotarretako asko oartuazi eta fede-osoko egi ederrretara erakarri ta biurtuazitzearekin, debozio edo jaierezko gauzetan bere lagun ikasleak sartzearekin, eta birtutezko bide ta Sakramentuen arrera sarritakora zuzendu ta gidatzearekiñ.

Auxe asko izandu zan egokinde edo Filosofiya ikasten ziarduen Santa Barbarako alkartegian bere

kontra ekaitz izugarri bat jaikitzeko, ta ainbestekoa, eze, zuzendari edo erretore Diego Govea portugesak agindu zuen eman zegotela sala bat, zeña zan mai-xuen eskuz eta beste ikasilarien begi aurrean astin-duera ta azotaldi gogor bat, ederrak emanik, ezarritzea; kastigu lotsagarri ta latza alegiya, zeñarekiñ an okerrak ta iskanbilla zaleak ezitu oi zituzten.

Iritxi zan berri ori gure santuaren belarrietara; eta aurrenengo, berez oi dan bezela, gogor eta miñ egiñ zitzaien-txit aiñ kastigu latz eta lotsagarria eraman bearra; baña biotz andiarekiñ bere buruari eragiñik, joan zan aruntza, eta barruan zegoala eta kanpoko atea ere itxita, ta dana prest eta asitzeko puntuan eta egitekoa eiñ bear zan eskola edo ikasitoki andira sartu bearrean, bat batean bestera pensatu zuen, eta bere ezerezari begiratzea baño espiritu bitoreagoarekiñ, nola zan izan ere Jaungoikuaren gloria ta animen onari zegokiona, badijoa erretoreagana, eta esaten dio; leenago ere jazarre, karzela, ta katea eraman zituen ezkerre, beste ezbear ta kontrako edozer Jaungoikoagatik eramateko prest arkitzen zala; bañan ordea, begira zitzala arren, arreta andiarekin lotsakizun artatik sortuko ziraden kalteak; igerri zezakeala ondo, ikusten zutenean aiñ desonratua, guziak bera-

gandik alde egingo zutela, eta bertuteko bidetik joaten abiatu ziradenak berak ere urrutituko ziradela, eta gerokoan animetan egiñ nai zuen prutuba ere ala eragotziko zuela.

Ainbesteraño Gobearen biotza arrazoi oien indarrak, eta iztunak berak mugitu ta gozatu al zuten eze, berbertatik oso beste bat egiñik, eskutik artzen du, salara berekiñ badijoa, eta zekustenak izu arriturik zeudela, oñetaraño auzpeztuta, negar malkua ugari dariola barkazioa eskatzen du, aiñ birtute probatukoa zan gizon bategan eragiñ nai izan zuen ez-bear ta oke-rragatik.

Gertaera onen ondorengoa izandu zan len baño begiramentu obe ta geiagoz bere erakusbideai jarraitzea, eta Jainko oparoaren iritzi miragarriaren bidez Govea jaun bera gerozko denboretan Portugaleko errege ongille ta biotz-andiko On Juan irugarrenarekiko bitartekorik obeena izatea, San Franzisko Xabierrek eta Lagundiko beste aita askok Indietan fedea arrigarrizko moduz zabaldu ta barreatu zezaten, eta Japongo erresumetan ere ereiñ eta landatu.

Bere karidade irazakiaren egiteko miragarri bat edo beste oraindik emen jarri nai ditut.

Aitu zuen seguru Paristik ogeita amar legoara Erruanen Españarako asmoarekin arkitzen zala gaizki ta bakarrik gaixotoki batean bere dirubak arrapatu ziozkan onako gazte oker hura; eta orra nun puntutik abiatu zan, oñutsean ta erdi gosean zer jan-edanik bage aren billa joateko; eta neke pixu andienetako bat senti izan bazuen ere aurrenengo leguak igarotzean, leku aietako penditz baten gañera zanean, eziñ-esan-alako pozarekiñ biotza lertzeko zoriyan zabaldu zitzaion, eta ordutik arropa jasota ta korrika ta atsegiñez ojuka bazijoan gelditu bage; eta ala atzenik irugarren egunean iritxi ta laztandu zuen, konsolatu zuen ta arreta andiaz maitakiro kontu egiten egon zitzaion, eta aurrera segitzeko aiña sendatu zanean, Senatik barruna itxasoratutzen diran ontzietako bat eratu zion, eta ostera Españarako ere gomendio-karta edo gutunak eman ziozkan.

Ona oraiñ beste gertakizuna: itzalduna bazan ere, bizitza txit zabar ta okerra zerabillkien erlijioso baten gelara goiz batean sartu zan, eta animako begiyak iriakitzeko eta eroritzera zijoan bekatu-leizetik libratzeko eresi bizi-biziarekin, erregutu zion humilkiro konpesioan aitu zizaiola. Gogo txarrean bazan ere aitzera jarri zitzaion erlijioso, ta abiatu zitzaion peni-



tentea bere lenagoko pekatubak bat banaka esaten alako sentimendu sollots eta negarrakin ordea, eze konpesoreak laister bere penitentagana ta beragana begiraturik, eta zeñ bestelakoa ta okerragoa bizi zan ta zeñ esker-gaixtoko ta biotz-gogorra zan ikusirik, azkenean ere konturatu zan ze bizimodu doakabea zeraman, ta bereak gero Ignaziori aitorturik, bere eskupean jarri zitzaion bear zuen zuzenbiderako bere laguntza eskatuaz. Zuzengarria izandu zan espirituzko jarduntza santuak egitea, zeñaen bidez eta graziaren ikututze ta lagunkizunarekiñ sartu zan noiz edo noiz salbazioko bideetan, eta andik aurrera aiñ bizimodu ederrean iraun zuen, nola leen kontrara bere ta beste animen galbide ta ondamenean.

Atzenengo gertaera kontatu aurrean oroituazi bear det, beiñ alegiya gizonaren barrunbeak Jainkoaren ezaguerak ta amoreak irme ukitu ta berotu ezke-ro, errex edozeiñ neke ta naigabe eramatera jartzen dala.

Saiatu ondorean bada santuak milla arte ta modu, ta danak alperrik, beste gazte galai bat loturik zeukaten aiskidetza gaixto baten lazoetatik libratzeko, jakinik, zeñ lekutatik igaro oi zan gabero bere asmo zikiñ loietan likiztera, artara zijoan une batean negubaren

biotzean, zeña beti Parixen gogorrenetakoa dan, sartu zan erdi izoztua zegoan putzu batean billotsik leporaño. An sartuta zegoala, gazte hura pasatzen sentiturik, boz altuan itzegin zion esanaz: *oa, oa, doakabe ori, eta ere atsegiñ zikiñetan ase ari; ni bitartean iregatik emen egongo nauk otz-mindurik eta ire kontra altxatua zegokan Jainko asarratuaren besoari eutsitzen.* Ots-oiekin ta alako itz-izuakiñ arri-egiñik gure gaztea, ta ari zitzaiona zeñ zan ere ezaguturik, eta ez are gutxiago bere buruaz lotsatuta, aiñ karidade sutuaz miretsi ta uzkurturik, atzera biurtu zan, eta aldatua oso, beste bat zala ondorengo guzian, bere libratzalle ta ongilleaganako guziz esker-onekoa ta aiskide bikañ da mamikoa bizi izandu zan.

# **5.<sup>en</sup> BURUA**

## **Lagunak Parisen eta an aurrena egiten dituzten preskañi edo botoak**

Zala iraun-eziñagatik, zala zerekin joan etzeukete-lako, etzioten santuari Franciara jarraitu aurrena artu izan zituen lau lagun edo ikasleak; eta Cartujan sartu zan laugarrena ez besteak, erlijioan sartu gabe gelditu ziran; ta orobat egin zioten Parixen bereganatu zitzaizkan beste iru lagunak.

Oien ordeaz alabañan, Jaunak beganatzeko zeuzkan autaturik beste bederatzi nai beziñ bitore ta ego-kiak, eta batzuek Santa Barbarako alkartegian zebiltzanak, ta ona emen bat-banaka zein da zeñ ziran; Pedro Fabro Saboiakoa; Francisco Xavier, Naparra; Diego Lainez, Almazangoa; Alfonso Salmeron, Toledo-tarra; Simon Rodriguez, Portugesa; Nicolas Bobadilla, Palenciakoa; Claudio Jaio, Saboiatarra au ere; Juan Coduri, Provenzala; eta Pascasio Broet, Picardia-tar Prancesa; azkenengo iru oek Fabrok bere arte trebe ta

zeloarekiñ Santua Paristik kanpora zebillela irabaziyak ziran; bada zan guztiz trebatua animak Jainkoa-ganatzzen.

Luze biziro izango lizake emen zearo azaldu ta adieraztea lenengotik batzuek ipiñi ziozkaten kontra ta atzerapenak, nola, bere asmo santuetan sendo iraunik, oek igarota eraman zituen, ta zer trebetasun ta aziertubaekin banaka banaka beretu zituen, alik eta Jaunaren esku ta graziak agitz laguntzen ziola, bere erlijioaren ondape edo zimendu-arritzat jarri, ta apostolu berri batzuek atera zituen arte.

Ikusirik bere sei lagunak karidadean sugariturik zeudela, eta gogoan zerabilen ekingai andirako prest, 1534garren urteko Ama Birijiña Abustuko jai-egunean Martirien Mendiko Birjiñaren Elizara aiekin joan zan, zeña orduan legua bete uritik urruti egiten zan; eta konpesatu ta Jauna artu ondorean, danak biotz ta megope edo espiritu bat-berarekiñ preskañi edo botoa egin zuten, Veneciaraño igarotzeko bear zutena ez beste guzia utzitzeko, eta an urtebetean itxasoz joateko era on bat itxodonik, erromeriz Jerusalenera joan, eta antxe fedegabeak siniste egiazkora, ta kristauak bizitza obero erakarten jardunik betiko gelditzeko; eziñ ordea bazitezkean an gelditu, edo urte-barruan

Veneciatik irten, Jesu-Kristoren Ordekoari beren buruak eskeiñtzeko, nai zituen gisara eta eran animen onerako lanbidean ipiñi zitzan. Danak berritu zituzten boto oiek berak urrengo bi urteetan ere; eta orra nundi zorioenean sortu zan Jesusen Lagunkidan misio-etarako boto berezia profesioa egitean; eta bere erlijioso bakoitzak bereak berretan urteoro berritzekoa, eta gañera Lagundiak aingeruen Erregiña soberanagarako duen jaiera guztizkoa.

Etzitzaien bada besterik palta beren asmoai bukaera ederra egotsitzeko, ezpada batzuek beren ikasikizunak akabatzea. Milla bosteun ogei ta amabosgarren urtea eldutzean erabaki zuten egun jakin batean lagunak Alemaniatik barruna Veneciarako irte-tea, eta orobat Iñigo gurea denpora puska baterako, sendagiñak agintzen zioten eran, jaioterriko aize giro-etara zijoala osasunean irmetu ta pijotu zediñ, bada makala ta erdigaldua zerabilen; eta andik Veneciara biurtutzean, Naparroa, Almazan da Toledotik pasarik, oietakoak ziraden iru lagunak eginkizunak zuzendu ta mugonean jarri zitzala.

Ala egiñ ere zan; eta Parixen buru ta agintaritzat bere leenengo lagun ta apaiza bakar Fabro utzirik, Españaronz abiatu zan eta 1535urte bereko Asensio

ta Pentekostes Pazkoa bitartean bere erri maite Azpeitikoan sartu zan.

## 6.<sup>en</sup> BURUA

# Bere jaioterri Azpeitikoan

Bada batez ere bere erritarren artean diraute oraiñdik bizi ta giro santu ospatsu ta argidotar onen oroimen gozo eta jaiera iraunkor biotzezkoak, ongi dirudi bai oraingoan zearoxeago emen, nolatan bere sarrera ta egonera izandu ziraden azaldutzea; askok alabañan jakiñ nai izango dute eta besteren batzuek ere pozik berriro bururatu, eta esan: *emendixe barruna jetxi zan; onako iturri onetan ura edan zuen; emendik sartu zan; orrako etxe ortan bizitu zan; emen predikatu zuben; eta an edo aruntzago onlako edo alako mirari egin zuen, edo alako edo onelako egitekotan bere santutasunaren ukimen eder eta siñalea utzi zuen.*

Urdalleko miñ gogor eta oñazeakgatik erosi zioten Parixen bere lagunak muxaltxo bat, unetik unera beñepeñ gañean joan zediñ Española bitartean.

Bere anaiak jakiñ zuanean bazetorrela, eta euskalerriratu zala, bialdu ziozkan bere-bereala Franciako muga-ondoraño bi gizon armadun bidean lagun zegio-

ten; etzuten ordea ezagutu berarekiñ topo egiñ bazuten ere.

Donostiatik aurrera anziñako zaldibide zar latza ekarri zuen, zeñ Asteasutik barruna dijoa, Ernio-mendi-atzeko epaitzetatik itxasoa ere agiri dala, eta Araunza ta Gainzako tontor bitartarteetatik jetxirik, Enparango zubi ta etxe purubetarraren alboan bukatzen da.

Bi edo iru leguaz urruti, benta Iturriozkoan atsedetan santua gelditu zan. Sartu zan ere andik laixter Juan Egibarkoa; ta aiturik ostalari etxekoandreaki nola iritxi zitzaion Euskeraz itzegiten zuen ezezagun bat, zegoan gelako ate zirrikatik begira zelatan jarri zan, eta morrolloko txulotik ezagutu beziñ aurki, *Don Inazio da*, esanaz, korrika Ezkurrua ta Etumeta-gañak arturik, aldapa bera abiatu zan, bere etxe ta erriyan berri alegre hura ematera.

Bereala boza banatu ta barreatu zan eta arrera andi ederren bat ere apainduri ta zaldizko-ta-guzi egiteko axmoakiñ ibilli ziran; baña on iritziko etzitziola-koan edo berriz laxter joango zitzaien bildurrez, bestera pensatu zuten; eta ongi-etorria ematera aurrera On Baltasar Arabaesa apaiza bidaldurik, ots geiegirik gabe irten zitzaizkan aide, apaiz, eta erritar-samalda



bat, batzuek Enparango etxe-atzeko bidean itxodotera, besteak urrutixeago orduan ermita zan Landetako basarretxe ondora, oraiñ Urrestilla ta Tolosarako bidegurutze egiten dan tokira; bada nai ta nai-ez, batetik edo bestetik pasa bear zuen. Eta ala, bigarrenera iritxi zan, eskuiko bidea utzita, eta Elormenditxoko basarri ondolik beera eskerrera dijoan baso-bidea arturik.

Jende bolada aren poz-agur ongi-etorri ta diosalen ondoren, erriratzean despita on gogortxo bat etorberriaren da etxetarren artean sortu zan; oiek beren Loiola-etxera eramateko alegiñean, au berriz zuzen zuzen, irme egiñ zuen bezela Magdalenako gaxotegira joateko ziardutela, bada etzuten ezer balio izan ez erregu ez arrazoi ta beste edozeñ munduko begirakizunek, bere jaioterrian bizi zan bitarte guzian beste pobrerik beartsuenaen gisan ibillteko zerakarren asmo umilletik aienatzeko.

Aiñ sentikizun andia artu bazuten ere, eta munduak dionez lotsa ta desonra ere bai, andizki alakoak ziradelako, bialdu zizkioten beiñepeñ beretakoai zegozkien moduko oia ta eguneroko jakirik maneatuena; au ordea beti gaixotegiko pobrei ematen zien, eta oi artan egundaño etzauntza bat egiñ etzuen, goi-

zero polliki banatu ta naastutzen bazuen ere, alik eta zer zerabillen mirabeak oartu ziran arte; eta besteai bezelako gaixotegiko bat ipiñi zioten, ta an gabean batzuetan lo egiten zuen, bada geienez lur gorriaren gañean zetzan. Egun bat bakarra dirudenez bere jau-regi-etxe-Loiolakoan pasa izan zuen eta onetara ere belauniko erregu biziakin bere kuiñatak beartu erazi zuen; baña biaramon goizean goiz iñortxo ere susper-tu bage zirrikatu zan igesi kanpora, kondarairatzalle bat edo bestek egun zenbaitzuek alkarrekin atsegiñ andian igaro zituztela, badio ere.

## 7.<sup>en</sup> BURUA

# Bere erakutsi-onak jaioterrian ondorengo prutu ederrak

Errira etorrita biaramon egunean bertan kaleetan barruna eskean asi zan, eta ala ikusiarekin kaletar guziak arrituta utzi zituen; eta bere aide ta anai nau-siena tristuratu ta atsekabetu ere ziraden ez gutxi, bañan etzion orregatik egunero atez-ate ibilteari laga, ematen zioten jatekoa arturik.

Andik laster humeak eta mutill-koskorkorrak bere-gana bildu ta dotriña aiei erakusten abiatu zan; eta arpegira emanik bere anaiak onegatik, etzegokiola ondo ala ibiltea berari ta beretako bati, ta alper-alper-rik ziarduela esanik; eranzun zion, hume bat bakarra aitzera gelditzen bazitzaion ere, lan eta denbora hura ederki igarotzat zeuzkala. Etzan ala gertatu; ezpada umeak berak aundi ta azientzako ere amu batzuek bezela izan ziraden; bada gizon da emakumeak an zijoazkion aitzera korrika, eta aurki urbildi zitzaizkan bere anai ta aide gañerakoak ere, eta gero elizan jen-

dea eziñ kabiturik, kanpo zabalean predikatzer a bear-  
tu zan.

Jenderik geiena inguratu zitzaion itzaldi edo ser-  
moi batean esan zuen eze, bi erakai edo arrazoi-bidek  
bere jaioterrira erakarri zutela; bata bere gaztetzako  
zorakeri ta erakutsi okerrak alegiñean desegiteko;  
bestea berriz an bertan arkitzen zan gizon baten onra  
ta ondasunari begiratu ta ordaiñtzeagatik, era berean  
biatzarekiñ siñalatu zuan, bada hura urte batzuez lee-  
nago bidebagekeriz karzelaratu ta multatu zuten  
pruta puskaren bat ostu zuelakoan, txarkeri hura egiñ  
zutenak bera ta bere antzeko lagun ajolakabe batzuek  
izanik; ezbear argatik ordean, an guzien aurrean  
berek gelditu zitzaizkan bi soro edo lur-zelaiak beti-  
betiko ematen ziozkala.

Beste egun batean predikatzen ziarduela Hospita-  
letxo ta Magdalena bitartean elizatxoaren atarian, bi  
mirari moduko garaimen ederrak iritxi zituen bere  
itzaldiaren bidez Jaungoikoaren graziak neskaxa  
bategan, zeña basarretxe Enparan-gaiñgoaren leio  
batean erdi-etzana kanpora begira zegoan ea zerbait  
aitu al ote zegion. (Gaur Madalena ta etxe ori alkar  
ikustea beste gero eindako berri batek eragozten du).  
Bata izandu zan, irureun bat pauso iztunagandik zego-

ala, dana klaru ta zearo aitzea; bestea berriz oraindik askoz andiagoa dana, ondo damutu ta bere bekatuagatik negar egitea, eta orduraño zerabilen bizitza gaixto zabarra utzirik biotz biotzetik Jainkoagana biurtzea.

Onetan bizitza garbi berri batera jartzeko premiandia zegoan denpora aietan errian eta inguruetan, eta jarri ere ziraden jendeak, Jaungoikoaren erruki-menduz eta bere serbitzari leial onen itzaldi ta erakutsi onaen bidez; bada etzan aspertu bere jardunean alik eta desonestidadeko griña zikiñ lotsagabeak sustrai sustraitik atera ta kendu arte; ta eginkizun onen prutu onenetakoa izandu zan, apaiz-etxe batzuetako emakume usai txarrekoen oitura agiriko anziñakoa kentzea, zeña zan ezkondu on leialen gisan apañdilla zuriya oek erabiltea, bada oi da euskal-errian oraindik, andre-ezkonduak apaindille edo buruko zuriyarekin ibiltea, alargunduak beltzarekin, eta neskatxak illeutsean edo apandillarik gabe.

Iritxi zuen orobat beste andreak ere beren gala kostuzko ondagarriak beingoan utzi zitzatela, edo onetan beintzat geiegirik ez erabiltea aurrerakoan; orobat karta-jokuak kentzea, bada onetara ere txit emana zan orduko jendea; baita ere Sakramentu

guziz Santuaren anaitasuna ipiñi zuen, parroki edo bezeroteiko pobreen alde eta oien onerako ere bere Loiola-etxekoak beartuak geldi zitezela betiko, jaioro elizan amabi ogi ematera; pekatu larri edo illkorrean zeudenentzat eta purgategiko animentzat erregutze-ko iru aldiz egunean eskilla edo kanpaiak jo zitezela; eta azkenik *nai izan zuen guztia egin zuben*, batera aitortu zuten bezela bera doatsutuzeko egitekoa erabilli zuten lekuko edo testiguak.

Guziz oroimen eder eta esker-onekoa geratu zan Santua bere erritarrak-ganako, eta ala ere berai aditzera eman zien Erromatik, izkribatutako karta maitagarri baten bidez milla bosteun da berrogeita batean. Ori dakar XI latíñera itzulia eta Bolonian 1804garren urtean argitaratua Aita Erroke Mentxaka euskaldun Llodiotarrak zeñ zan gizon argiya ta birtutetsua agitz, eta Carlos irugarrenak erresumatik erbestetu zituen jauskañi errugabeetatik bat.

Jaio zan lekuko aize ta egurasteak aurki premia zuen osasuna eskuratu zioten; baña ondo senti zane-ko, berriz ekin zion penitenzi edo damulan gogorrak egiteari, ondo kosta izan bazitzaion ere bada bi aldiz okerrago ostera gaixotu zan; eta orduan ere bereeta-koak etxeratuta, oi duten kontu da onginaiarekin sen-

datzerik etzuen iñola nai izan; etorri zitzaizkan ala ere nolabait zer edo zertan gaixotegian berari laguntzeko bere lengusu bi, Ona Maria Oriolakoa eta Ona Simona Alzagatarra, zeñak karidade argatik saristatu zituen Jaunak erregutzeko denboran santuba airean goratuba, Jainko-amorez sutua, ta argi-erraiñuak inguruan zeriozkala ikustearekin; eta berentzako oañdik obeizandu zana, biyak gero bizitza guzirako Hospitaletxo artan zeuden beartsuen ta gaixoen serbitzari ta kon-tuartzalle geldi ziraden.

Orrezaz gañera, santu onen mereziera ta santutatsuna agertu ta sinistarazi zituen gure Jaunak profezi edo igarletzako doaia edo grazia ematen ziola, eta orobat gaisotasun ilkorrenak ere sendatzekoa bere bedeinkazio edo arropa garbitze utsarekin.

Azkenik bere egoeraren oroimen eder betikoak utzi zituen tokiak, lenengo partearen aurrenengo buruban aitatu giñuzen bere jaietexe gaztelua San Sebastian Soreasuko parrokian dagon pontia, ta Ama Birjiña Olazko, eta Egimendiko San Pedroz-gañera, jakingarrienak dirade, bere erri Azpeiti guztiya, ta batez ere Magdalenako gaisotegi edo hospitaletxoan deitzen ziotena, oraiñ ordea egon zan tokiko etxeari Benta-berri zaio eta au seigarren lumeroarekiñ Santa

Anako plazatik Eleizaronz, eta Zestuara ta andik Zarautz ta Donostiara daraman bidearekin eskiña egiten duena da; ta onen paretan ipiña dago pinturazko Santu beraren iduri aundi bat, zeñaen aurrean parola gabero iziotu oi duten, eta gañera ara juan oi da ere bere onran soñu ederrak jotzera erriko musika edo soñulari-taldea santuaren zorziurren bitartean, eta berak Iruñeko gazteluban artu zuen balazo eguna urteoro ospatu edo zelebratzean; ala ere pesta ta jendetzarik geiena Loiolako Etxe Santu, Eleiza, Kolejio edo Alkartegi ta onen aurreko zelai-zabal giroan izaten dira. Erriaren ertzetik irtetean ta Ospitalletxo zanetik eun bat pausora arkitzen da Magdalenako eleizatxoa, eta onen atarian geienez predikatzen zuela segurutzat dadukate, beiñ baño sarriago igorik arbola edo zuaitz baten besangaetara. Arbola oien oroimen atsegiña gorde izan dute gaurdaño Azpeitiar prestuak zarrak igartzean leku berean berriak landatzearekiñ, oraiñ bertan lonbardo-makal andi bat baizik ezpadago ere. Aitatzekoa da ere denbora aietan estrata edo gurdibidea izango zana, ta oraiñ espoloi-onarekin erriya ta Loiola bitartean dagon Olazko Ama Birjiñaren pareko tokiya, nun Salbe bat errezatu oi emen zion santuak, bertan arlandu galantean letreruak egiz-



tatzen duen bezela; eta nundik pasatzean beste ain-  
beste egiteko jaiera ta oitura duten asko ta askok.  
Santuaren etxekoena zan ere anziña-anziñatik Arzubi-  
ondoko Insula-etxea, ta an sarritan egon oiko zan,  
zeren bertan zeuzkaten jai-egun andietan elizaratzeko  
bear zituzten soñeko ta arroparik apaiñenak. Gogoan-  
garria da azkenengo ta ez aaztutzekoa Elosiagako  
aldapan bide errial azpian Kiruri, Arritxuri edo Gara-  
garzaberri izena duen basarritik urre-urrean sortuta ta  
beera labaiñtzen dan iturri iori geza-goza, nora bere  
ur bigun garbi gozatsua eratera joan oi omen-zan, eta  
orregatik gaurko egunean deitzen diote San Inazio-itu-  
rriya.

## 8.<sup>en</sup> BURUA

# Veneciarako irteten du

Iru illabetez gero, bere osasun biguña sendo-txamarturik, berriz beretarrai kontra egin bearrean arkitu zan, ta garaiturik aien berezko ateraldi ta erasoak, eta arrazoi-iduri-hura eze bere erritarren artean iñun aña edo protxu geiagokoa izango zala, guzien negaraldi eta laztantzetik noizbait irtenda, aienatu zan, eta bestela eziñalean lagunez ta begiramenduz betea abiatu ere bai Naparroaronz; baña Gipuzkoako mugapetik kanporatzean, nolala limuriturik, bakarrik eta oiñ-gironan aurrera jarraiturik, joan zan Iruña edo Pamplo-nara, eta Almazan, Siguenza, eta Toledora, bere lagun Españakoen eginkizunak zuzendu ta bear zuten oinpi-dean jarritzera.

Toledotik Segorveratu zan, Valde Kristoko bakartardiyen bere Parisko maisu On Juane Castrokoa kartujo-janziyan ikusteko asmo ta gogoarekin, eta leenago Amberesen Pedro Cuadradori esan ziona, oni ere, aiskide mamiko ta gizonik prestuena ta kuadriari bezela, aditzera eman zion bereala azalduko zuen Lagundiaren maneakizuna ta kemenkidatzea.

Valenciatik ugarotu zan itxas-lapur andi Barbarroja zeritzanaren ezer bildurrik gabe; onek alabaña Turco-andiaren eskubidearekin buruzai zegoala, Mediterraneo-itxasoko pasadizoak artuta zeduzkan; Jaunak ordea bere errukiz aren atzapar eta eriotzako edo katibutasuneko perilletik gorde bazuen ere, merezibidea eman zion Genovan leorreratu baño leen atzitu, ta estura-larrian ipiñi zituen ekaitz-beltz baten bidez, zijoazen ontzi hura ondatzeko zoriyan zerabillega. Pasajero gaixoak esku ta begiak zeruronz, Jainkoari erregutzen deadarka baziarduten, istante-oro eriotzaren beldurrez; Iñigo gurea berriz lanze artan bertan sosegu-soseguz egon zan, Jaunaren begirunde maitetan uste osoa ipiñirik, bakar bakarrik zerbait atseka-be ematen ziola, orduraño bear bezin leialki ta zinzo bere esku oparoagandik arturik zeuzkan mesede ta ontarte aiñ berezi ta andiai ez eranzun izanak.

Egundañoko perillik arriskatuenean arkitu zan beiñ batean elurte galantarekin ausa Apeninoko mendiyak iraulitzean, berak aitortu zuan bezela; bada bidea utseginda, izugarrizko aitzarte edo leize-moduko batean beera, zeñaren azpitik ibai indar andiko bat zijoan, irristatu ta amildu zan, an bertan ez atzera eta ez aurrera geratzen zala. Ala ere nola-ala geroenean

arrastaka, amillka, ta erdi-txilipurdika lan eta neke andiarekin bazan ere leku obero igaro zan, Jainkoak bere esku guzialtsuarekin nunbait ere gorderik.

Bolonian sartzerakoan, erori zan orobat ustekabean likistegi edo istingai zikin batera, andik dana loitua zekusatenen iseka parre ta algarakin irtenik, okerrago bat oraindik gertatzen zitzaiola ondorean; bada, erdigaixoa aiñ jendetsua zan uri hura dana ibilli ta inguratu ondorean, ur-tanta bat ere eman nai zionik iñortxo billatu etzuen, alik eta anziña-anziñatik Españatarrak an daukaten Arau-jakiñtzako alkartegian premia zuen erruki, begiramendu ta Españolen kristaukaridade ta onginaia arkitu zituan artean.

Atzenean ere pausoz-pauso Veneciaratu zan milla bosteun da ogeita amasei-garren urteko Abendu-illean, beste batzuek diotenez berriz ogeita amazpi-garrenaren Ilbeltzeko sei edo zorzigarren egunean; ta an atsegiñ bete betean inguratu ta pozik laztandu zituan osasun ederrean bere lagun biotzeko maiteak, are geiago Pedro Fabrok irabazi ziozkan iru aiekiko geitzearekin alaiturik.

## 9.<sup>en</sup> BURUA

# Venecian irugarren aldiz

Zor zitzaion atsedean pixkatxo bat gorputzari emanik, Jainkokinde sagradua berriztatzeari gogotik ekitzion, ta beiñere pakean utzi eziñ ziona, animen onera ere egiñ-alean begiratzeari.

Andik egun gutxi-barru Lur-Santuetatik zetozen bi anaia Españatarrak leorreratu ziraden antxe; oien izenak ziran Diego ta Esteban Eguia, Iruñdarrak zeñak biak aixa santuak bereganatu, edo obeto esateko, Jainkoaganatu zituen, Jaun berak lenengoa bere konpesatzalle izan zediñ Erroman autaturik; bada gizon jaineradun, txit zuzen, begiratsua, ta artarakoa zan izan ere.

Aurki bi autango oiek baño gutxiago etzan beste galai bat bere ebanjelio-sarean sartu ta erori zitzaion: au Malagatar Diego Hocez zeritzana zan, eta asieran Iñazioganako errezeloetan da zelatan zebillena; baña jarduntza-santuak egitera jarri zan unetik bertatik, zigor mirarizko baten ukitura bezala, bere eskuetan oso jarri zitzaion, ta bere semeen artean izendatu zan. Auxe bera izandu zan geroxeago aurren-aurrena

peliazko Lagunkida lurrekotik garaipenezkora sartu ta zeruratu zana, ikusirik santuak nola bere anima, gorputz ustelkorraren lazo ta korapilloak etenik gloriar inguratua ta argi-erraiñuak zeriozkala, igo zan zeruko bizitoki ta jargoietara; bada arbola galant eder iori aien artean landare berri biguña izan arren, denpora gutxi naikoa izan zuben bizitza-betiko pruta gozomatuz zamaturik, aiñgeru ta zerukoen arboladira aldatzeko diña egiteko.

# **10.<sup>en</sup> BURUA**

## **Lagunak leenengo ta urrena santua bera Erromaratzen dira**

Iru bat illabete igaroak ziradela, pobretasunezko erakai edo tituloz ordentzeko baimenak ekartzeko ustean, Erromarako atera ziran bere lagunak, eta leenago Alemania ta Suizako alderdietan lan da neke ez gutxi ta anbat are geiagoak bidean bizarki eramanda, ederki-ederki uri santu artara iritxi ziraden; bitartean gure Iñigo Santua Venecian geratzen zala, Palestinara joateko zuzenbideak aurreratzen; bada errezeloa bazuen eta lege ta bidezkoa txit, kontra egingo zietela Carafa kardenalak eta Pedro Ortiz, Cesaren bialkiñ zeñek Parixen ere leen berari gogor-egin izan zion, eta biyak ostera Aita Santu Paulo irugarrenarekiko guztiz asko zezakeenan ziraden.

Alaz guziaz ere, Jainkoak ala naita, etzien Pedrok ezertxo ere kontrarik egiñ, ezpada emeki arturik, berberak Aita Santuarekiñ itzegitera sartuerazi zituben, zeñek entero pozik aitu, eta aiegan danetan zekusan

jakinduri, zelo santu ta modutasun egokiaz miresturik, eskatzera joan zitzaizkaten grazi ta mesede espirituzko guziak oparo ta ugari eman ziezten, eskupeturik ere gañera zerekin Veneciara ondotxo biurtu.

Allegatu ta bereala Aita Santuaren baimenaen bidez segituan ordendu ziraden, eta santuak orobat apaiz-mallako ordena San Juan Bautista-egunean, aotango urte gere salbamenduaren milla bosteun eta ogeita amazazpi-garrenean, artu zuan.

Kanpoan zebiltzan bitartean, inpernukoa beti Inazioaren etsairik zitalena, etzan lo egon ausa; bada ertz eta eskiñ guzietatik zirikatu zituen zenbait persona, bere izen on ta onra beztu edo beñepeñ illuntzeko amaika iskanbilla ta esamesa gezurti banatu ta egiztatutzera saiatu ziradenak. Bost onelako aita-sembleai oraiñdañokoan deabru ta bereetatik etorri izan zaizte! Baña esankizun aien gañean gauzak argitu ta zearoturik, ez bakarrik salatuarenganako erabakiera barkaziozkoa, ezpada bere bizimodu eta erakutsikizuna oñ ederrean ta txit onragarri jartzen zuena, eman zuen on Jeronimo Veralli, Jabedi artan Aita Santuaren aldameneko bialkiña zanak.

Egunetik egunera alabañan jabedi orren eta Soliman Turkoaren arteko guda bizia sututzen abiatu



zanean, eta Adriatiko-itxaso kosta inguruai etsaiak bere ontzi-samaldaekin gogor egiten ziela; pensatu zuten bitarte hura pasatzeko, eta aurrenengo meza ematera obeto prestatzeko, batera ta bestera alkar berezitzea, gure santuari Vicenciara Fabro ta Lainez-ekin joatea zegokiyola; antxen irurak bakartegi edo komentu zar baten legorpean lasto-pillan lo egiten zuten, neke askorekin da txit urri ta eskas gauza guzietan zebiltzala; aiñ ordea otoitzeratuak eta Jainko-aganatuak, ta aiñ malko gozo ta zeruko erregalo ta mesedez beteak, eze hura bigarren Manresa santuari zeritzaion.

Karrika ta plazaetara danak irteten ziraden Vene-  
ciatarren izkera erdi-jakiñean predikatzer, ta alako indar eta berotasunarekiñ eze, asieran millaka Italian oi diran aulki-berritxu edo saltarietakotzat artu bazi-tuzten ere, polliki polliki urreratu ta aitzen jarririk, arri-tuta geroenean gelditzen ziran, ta zerbait emanik berentzat damu-onez beteak makur-makur isillik etxe-ratu ere bai.

Denbora artan Basanon Simon Errodrigezi aita baten diñako bi ontarte eder-andi, bi mirari aua betean esan leizkeanak, egin ziozkan. Bata gaxotasun larri batean arkitzen zala, bere billa joan eta laztantze

utsarekin ia bat-batetango osasuna ematea. Bestea are atsegiñagoa oraindik, bere Jainkoaganako erregu bizi ta negaraldiakin hura leenengo bokazio edo atosimendua ta apostolu bizitzarako asmoak oso utzi ta atzeratzeko zerabilkien tentakizun izugarritik libratu ta gordetzea; bada bakardadeko paketasun ta gozoa-rekin lilluratu ta engañatuba, bakartar-lagun egiteko gogoakin zebillen an urreko Antonio-zeritzan batekin; au alabañan errikoak bere bakardadean zeraman bizi-modu gogor ta soñean zeukan janzi latzagatik benerrazten zuten anitz.

Abiatu ere bazan Simon gizajoa artara-jarrita eleizatxoa zegoan eremu aldera, baña orra nun estrata erdian agertzen zaion ustekabeen zentoi edo jigante izugarritzko bat ezpata eskuban aren kontra astindurik jarraitzen diyola; arri-egiñik billdur-gorrian atzeratzen da korrika, zalapartaka igas-eiñik, ta estura larrian Ignazioren besoetara iristean, besarkatzen du onek parre-anzian diyola: *sinismen gitxiko gizona, zertan zalanzan zebilzan?* Jainkoagandik zer pasa zitzaion guzia jakin zuanaren siñalea.

Ikusirik argi ta garbi, iñolaz eziñ aurrera eramango zutela Jerusalenera joateko zeukaten preskañi edo botoa, batu zituen Venecian bere lagunak, eta alka-

rren artean erabaki zuten, preskañi egiñaren bigarren parteak zion eran, Ignazio bere Fabro eta Lainezekiñ danen izenean Aita Santuaren eskuetan jartzera Erromara joanik, beste gañerakoak Italia-goiko ikasolaetan sakabanatu zitezela; ea onela beren izketa, erakutxi-on, ejemplo eder eta bizimoduarekin beste gazte autatu onen batzuek ere beren asmo santu ta ibillera-modura atotsitu ta erakarte ote zituzten.

Alkar utzi baño leen orregatik, an bertan guzientzat sortatxo batean bezela Lagundiko bizibidearen marra edo legerik garaiyenak batu ta zuzendu zituzten; oiek ziran, eskean-bilduarekin bizi eta gaixotegi edo hospitaletan ostatuz egotea; txandaka bata bestearen buru edo agintari asteoro bakoitza izatea; plazaetan edo aitzalleentzat egokiena zekusaten tokietan predikatzea; kristau-dotriña edo jakintza eta oitura prestubak umeai erakustea; beren lanbide ordañez bezela ezertxo ere ez eskatu ta ez artutzea; eta beste edozeiñ bide on ere, lagun-urkoen protxurako izanik, beren-berekitzat ta beren bizi-legearen erakotzat eukitzea.

Eta gure santuaren Erroma-bideko gauzarik ospatsuen eta oroigarriena emen aitatu dezagun, gertatu zitzaion, bakarrik otoitz egitera Storta deritzan ostatu-

txo edo bentaren aldameneko elizatxo batean sartzea, (zeña arkitzen dan Erromatik bi leguara Florenzia bidean), eta an euki zuben ikuskera zeruzko aiña omen andikoa, zeñean klaru-klaru animaren begiyakin ikusi zuen Aita-Jainkoa, zeñak bere Seme-Bakar gurutzea sorbaldan zeramanarekin itz-egiñik, maitakiroguziz berari Ignazio ta onen lagunak gauza txit bereak bezela gomendatzen ziozkala, bere esku-altsu-pean ipiñten zituen; eta Jesus onak berak, bere serbitzariari arpegi alai gozatuaz itzulita begiraturik, esan ere zion: *Ego vobis Romae propitius ero: ni zeron alde Erroman izango nazue;* eskañi gozoa bizi, eta orduan bere ta beretakoentzat ainbeste atsegiñez bete ta ase zituena izandu bazan, Jainko itsaltsu berak agintzen zien dana guzia beraren gloriarako alaitasun berri bizi batez eramateko; gozo ta seguranza ez gutxiagokotzat izan zana, eta ondorengo denboretan ere Lagunkida guztiarentzako izan bear dubena.

Geroenean Aita Tirso Gonzalez Lagundiko Buru-nagusi zala, oroimen argidotar ori betikotutzera saiatu zan, latiñez nabarri landu batean ermitatxoaren atalburuban otallutu-azirik, eta orobat an gertakizun bera adirazten zuen pinturazko iduri bat, ipiñierazirik.

# 11.<sup>en</sup> BURUA

## Erroman bigarren aldiz

Milla bosteun da ogeita amazpi urteen azken inguru artantxe gure Santuba bere bi lagunakin Erromara iritxi zan. A. Fabro Sapienzian Eskritura sagra-  
dua, eta A. Lainez berriz Jainkokinde Eskolastikoa, Aita Santuak ala naita, erakusten asi ziraden. Santuak orobat ekiñ zien bere beargaiari, batez ere gizonik andizkienetakoai ejerzizio edo jardunaldi espirituzkoak emateari, ta oen artean lenengoetakoa izan zedilla nunbait ere Jaunak nai izandu zuben Gaspar Contarini Kardenala, zeñaz baliatu zan andik laster, Aita Santuaren gogoia prestatu ta mugi zezan Lagundiko bitezardea edo bizilegea aztertu, begiratu ta ontzat-emateko; egiteko au alabañan Jainko-berarena gizonena baño geiago zan, nola izaten diran ere bere gureganako ongina neurrigabeaz bere Eliza lagundu, erakutsi, gorde, babesatu eta santutzeko bialdu oi dituen beste ordena erlijiozko guziak.

Bigarrena, arestian aitatu genduen eran, Aita Santuaren eta Cesaren ingurukorik andienetakoai, onen bialkiñ Pedro Ortiz izandu zan, zeñ santu berarekin,

sosegu ta prutu geiagorekin jarduntza santuak illebe-  
te osoan egiteko, Casino-Mendiko bakartegi ospatsura  
bildu zan.

Sasoi-artan ere Erroman bereganatuazi zuen,  
mundu zoroaren itxaso zabalean uste lilluramenduzko  
olatu arro-puztuen artean zebillen unean bertan,  
gazte galai Francisco Estrada zeritzona, bere doai  
eder ugariakgatik lenengo lagun edozeiñen kidakoa;  
bada orixe izandu zan, urte-gutxi barru bare itzaldi, ta  
jarduntza santuak ematearekin, bi gauza oietan mai-  
xuenetakoa zala, Europaren parterik galantenean bio-  
tzak pekatuzko lo-zorrotik suspertu ta esnaatu, ta jen-  
detza andiak bizitza on kristauzkora erakarri zituena.

Milla bosteun eta ogeita emezortzigarren urteko  
garizuma denboran, berak atotsiturik, beste Aita-lagu-  
nak batu zitzaizkan; eta danak or-emen elizaetan pre-  
dikatzera ta konpesioratzera banaturik, aiñ prutu ta  
uzta ugaria biltzen abiatu ziran, batez ere ordurañoko-  
an an erdi-utzia zegoan oitura, Sakramentu santuen  
sarri-artzearekin, eze ziran baño geiago izan balira  
ere, etziran ezer-naikoa izango alako mugimentu, eto-  
rrera ta erri ujoldearentzako.

Orroa-eman zuben inpernuak, eta egundañoko  
ekaitzik gogorrena santuaren kontra jaikierazo ere

bai, baliaturik artarako Frai Agustin Piamontekoa zertuzan erlijioso batez, zeña predikatzalle ta iztun ezti-tsua zan guztiz, baña Luterotar marrajoa orobat. Alako batean Aitaetako batzuek aitu nai izan zioten; eta nolaere-bai ziran jainkokindelari argien ta aditueneta-koak, zerren ondo ikasiak zeuden Santo Tomas ainge-ruzko irakaslearen erakutsikizunean, zeña dan lee-nengotik berealaxe herejetzarren tranpa ta arti-maga-ñai igarritzeko menastarririk seguruena, aurrenenen-go erausian ezagutu zuten arkume janzian ari zitzaien otsoa. Karidadez bakarrean konturatu zuten; baña orduan-da okerrago suta-salda irakiñik irrinz egin zuen. Aiek orduan Jainko-jaunari leial zitzaizkan mira-be ta serbitzariyak bezela, agitz pulpitu ta iztokietatik adierazo, ta uritarrak jakiñaren gañean jarri zituzten, zeñ eriotzazko larre galgarrietara erakutsi berri gaix-toaren ondoren pilloka zijoazen, eta zenbait puzunizko itz eta ots leun lano ederrakiñ beren belarriak gizon txar ark lilluratzen ziezten, ezertxo ere animaren bekatuzko zauriai ikutu gabe ordea, doakabez orain-dik gaurko egunean bertan iztun berrizale zenbai-tzuek oi duten eran.

Eziñ sinistu zer gorroto ta arrotasun itxuan Ignazio ta beretakoen kontra ekin eta eraso zion, kontuan

jarrierazorik bere aditzalle-talde ugari guzia, ta zeñ da zeñ ziraden, beatzarekin, esateko moduan, siñalaturik, aietatik izurri batetik bezela, iges egin zezaten: ta au ezer-gutxi zeizkiola, billatu zituen bere asmoetarako españatar gizatxar al-zituen batzuek, batez ere ordea Miguel Navarro zeritzan biotzgabeko bat, zeñan Parisen bein batean santuak Franzisko Xabier beragana irabazi zuelako bakarrik, eskuban zeraman ganibeta batez santua josi ta pasatzeko ibilli zana, eta zeruko deadar-ots batek artatik bildurtu, ta lurrera egotzi ta ezarririk, atzeratu zuena. Onako Miguel oni eragin zion bada predikalari doakabe ark, salatu zezala Ignazio auzitegian, egiñ ere zuena, gezur galantarekin ziola ezik, ber-bera an zala, Alcalan, Parisen, da Venecian ere, hereje edo fedeausletzat emana ta erabakia, ta baztar guzietan igesi zebillen gaizkille artes bat bezela, tallu-idurian sutaratua ta errea izandu zala.

Eta nolaere gizonen naiera ta borondateak aiñ aldakorrak ta irabiazaleak bai diraden, eta asko ta askoren doakabetasun tristea gaizki-esanak goxogoxo aditzeko belarri biak beti prest eta ondo irikiak eukitzea, oiei egiari baño sinismen geiago emanik; guzia puntu batean trukatu zan; jendetza bakarda-



dean, onginaia eziñ-ikusian, ta beiñ Ebanjelioaren serbitzalleai tatxa egotzi ezkeru, bereala inpernukoaren aize-boladak, erne baño ere leen, ereinda zeukaten azia dana leortu ta galdu zuen.

Tranze artan aiek, baña danak baño geiago oraindik Ignaziok, Jaungoikoaren errukimenduzko belarrietara biotz-biotzeko erregu biziakin ots eta deadar eman zuben ziñez eta menaz, baita ere Jaunak aitu zituen oparo ta samur txit aurki, beren izen onaren alde irtenik, eta beren ezpañetan erakutsikizun on egiazkoai berriro indar eta kemena ugari ezarririk; bada Aita aiek bizi ta Ebanjelioa zabaltzen ibilli zira-den uri ta errietatik alabanzaz bete ta liri-liri-gañezkako informe edo billakindeak zetozkien bitartean, egin zuen ere bere begirakizun mirakarriarekin aiñ sasoi egokian Erroman arkitzea Ignazioren auziyak erabaki izan zituzten Juezak berak; au da, Juan Figueroa Alkalo bikarioa, Santo Domingoren ordenako Maisu Prai Mateo Ori, Parisko fedezaia, eta Gaspar Doktiskoa Venecian Aita Santuarenganako Bialkiñaren enzunle edo aditzalle zegoana, zeñak guziak lekukotzat edo testigu aitatuak, ta eziñ iñor egokiagorik, era berean aitortu zuten eze, Ignazio bere auzitokietan salakizun eta gaitzusai guzitik librea erabakia ez-ezik, gizon

prestu kuadretzat alabatua, ta leen baño ere bere bizi-modu ta erakutsi-bide ederretan obeto probatua agertu izan zala.

Eta une onetan egiya klaru asko ikusi, ta engaño gabe ta pake soseguan gelditzen ziran ezkeru, beretakoen batzueri ta beste persona itzaltsu zenbaiti orobat, auzi-kontu artan atsedean, da ez aurrera erabaki-osora segitzea on onena baziraizkien ere, Ignaziok gogor egiñ zuen, bukatu ta akabatu bearra zala, bere adiskide Pedro Contariniri orduan eskribatu zion eskuzkribu edo karta baten azaldu zituen onako arrazoi bidezko ta egoki oiekgatik, modu onetan esanik: «Nik ondo dakit ez dirala ez onenbestez mututuko guri gaizki-esaka jardungo diran mingañak; ez naiz zenzugabea, orrenbeste uste izateko aiña; baña ordea dotriña garbi ta erakutsi fede-osokoa dana utsegiñez zikindua balego bezela agertzen, ez degu iñolaz utzi bear, ez eta ere bizona-modu errugabea errudun, edo kulpazkotzat eukitzen. Moldakaitz, zabar, ta ezjakintzat, ta are engaño-zaletzat oaindik, gu gaizki-oituren batzuek eukitzea, eramango degun gauza da. Gerok alabañan predikatzen diardugun dotriña edo erakasi-ona gezurrezkotzat, eta darabilkigun bizimodua kulpakor eta okertzat eukiya, gure isiltzearekin onetsitzea

ta eramatea, guk eziñ dezakegun gauza da, zerren ez bata ta ez bestea gureak diran, ezpada Kristoren Eleizarenak».

Oneraño santu guziz begiratiyak.

Azkenean bada, Erromako eraentzalle Benedicto Cursinok Aita Santu beraren manu edo aginduz 1538garren urteko Azaroaren emezortziya, itz guziz onragarriakin biziro, gaitzusai guzitik oso libre ta bagetzat Ignazio autortu ta eman zuben, eta bere etsai edo kontrestak orobat salgaixtotzat; eskuraturik orrenbestez eta presoturik oietatik al zitubenak; bada besteak itzetik-ortzera igesi banatu ziran. Geienak atzenean ere akabera txarra izan zuten, eta guziez gaiñ okerragoa iskanbilla dana sortu ta sutu egin zubenak; zergatik, mozorro-arpegia kenduta, zana bezela azaldurik, ez ala bearrean zeraman habitu-jan-ziya utzi zuen, eta Ginebran fedea ta erlijioa ukaturik, geroenean bere gaizki-egiñakgatik surtan errea iza-tearekiñ arenak egin zuen.

Geien geiena ordea zerekiñ berriro Ignazio ta bereetakoak Erromatarren borondateak irabazi eta beren bedeinkazio danak guziak berenganatu zituzten, karidadearekin izandu zan; bada, andik laster iritxi zan negurik gogor eta latzenetakoan sortu ta ill

askotan iraun zuen gesetean, millaka gose ta billostu, gaixo ta eri bildu ta etxeetaratu zituzten, gau ta egun lagundu, gozatu, ta onegiñik, eta jaten emateko ere ez beren eziñ andiagoa zan pobretasunaz baliaturik, ezpada artarako batutzen zituzten andizkietakoen eta zezaketenen limosna eta emaitza andi ta ugariaz, batez ere guziei eragiten zieztenaz, zeñak izan ziran Carlos 5en alaba Margarita Austriakoa, ta onen senar Octavio Farnesio Parmako Dukeak oparo ta liberalkiro bialdu zituztenak, gelditurik biak ordutik Ignazio ta bere Lagunkida-ganako zaletuak txit.

Diardugun kondairatxo-aldi onen bukaera ederra izango da emen aitatzea, nola santuak garai artan bere aurrenengo meza eman zuben; bada urtebete ta erdi igaroak itxodon zituban, lenengo aldiz aldarean Errege Jaun zeruetakoa bere eskuetara erakarritzeko zoriona euki eta gozatzeko, obeto prestatua arki zediñ; eta, gai onetan egokiena izango dana, ara zer karta edo ezkuzkribu baten atzenean berak anai-nagusien eta gañerako aideai iskribitu zien, mintzaturik onela:

«Gure on guzi Jesukristo Jaunagan anai ditudan Loiola-etxeko jaun Martin Garcia ta Beltrani Erromatik 1539garren Otsaillaren bigarren egunian. Araoz batxi-

Ilara, bere illoba eta Lagundiak izan zituen leenengo gizonik argienetakoa zan, emen gelditzen da. Baldiñ Jainko Gure Jaunak nik opa diodanetik zerbait parte ematen badit, bera bizitza onetan eta bestean aberastua izango da. Juan dan Eguberri egunean Ama-Birjiñaren eliza nagusieneko kapillan, nun Jesus Aurra ipiñia izandu zan ganbela edo tresabea dagoan, bere laguntza ta graziarekin leenengo meza eman nuben. Nai nuke biziro, eta Jaungoiko itzaltsu berarenganako amore ta begitarteagatik ere erregutzen dizuet, geron otoitzetan alkar oroitu gaiteala, beregan bakoitzak kontu egiñik, bukaeran eta atzenengo arnasetan dagoala, eta bere bizitzako kontu-oso ta larriya emateko zoriyan.

»Ontasunez beartua,  
»Iñigo

# 12.<sup>en</sup> BURUA

## Jesusen Lagundiaren onemantza eta sendotzea

Seguru ondo Inazio gurea alde batetik Jainkoaren agindutzaz, eta zekusala bestetik, agirian zegoan on andi hura guzia iraunazitzeko bide bakar-bakarra Aita Santuaren oniritziko erlijio-modu bat zimenduetatik jaikiazi ta zutitzea zala; bere lagun danakiñ alkar arturik, bere asmo ta eresia aren Santutasunari Contarini kardenalaren bitartez aurkeztu ta agertu zion bitezardearen mamiena azaltzen zuben kopia edo erabezta leial bat ere eramanik, zeña atsegiñez irakorri ondo-rean, esan zuen Aita santu berak azkenean: *Digitus Dei est hic: au da, edo emen dago Jainkoaren biatza.*

Onenbestez bere oniritzi-izkribuz-jarria eskatzera kemendu zan santua, eta beargarik andienetako au iru kardenalen iritzira eman zuben santutasun berak, irurak alabañan Elizan erlijio berririk iñolaz nai etzutenak ziraden, batez ere beren buru, jaiera ta jakintzan argia ta ezaguna zan, Guidiccione kardenala.

Ordea Jaungoikoak aiñ ekida aundiaren arri azpi-koenetzat autatuba zeukanaren erregu ta negarrak geiago oraindik al izan zuten; zergatik Jainkoaren aurrera sosegu ta ixilldu gabe jardun da jardunarekin, ta asmo bererako zenbat milla meza beretako guzien artean partiturik, kardenal ark oso bere iritzia aldatzea iritxi zuan; bada gizonen biotzat Jainkoaren eskupe ta mendean daude; eta puntutik unera, bera bere burubaz arritzen zala, bitezarde edo istituto berri argana guztiz zaletua ta emana senti zan, beraren gañean irakurten ziarduen dana-guztiya doanditu ta alabaturik, eta orra modu onetantxe leen kontrakorik gogorrena zana, hori bera Jesukristoren Bikarioagan bitarterik onena izandu zan; onek azkenean ere asiera «*Regiminis militantis Ecclesiae*» dakarren bulda agirikoarekiñ ontzat artu ta sendokortzen zubela 1540garren Agorraren ogeita zazpiyan.

## **13.<sup>en</sup> BURUA**

# **Irugarren denboraldi onetako santuaren birtuterik goien eta siñalatuenak**

Oraiñ gere begiak, edo dala oroimena, irugarren parte onetan guztian izkribatua dagonera atzeraturik, bertatik dakusgu, zeñ ispillu garbi ederra gure santua agertzen zaigun, ikasikizun denboran ikasi-naia ta letrazalea izanarekin, bertute aiek era berean bereganatzen, zeñak laxter sortuazi ta erne ere oi dituben animak irabazteko zelo beroak, eta saiakera bat bezela gloria Jainkozkoaren ekiñera andiagoetarako serbi oi duten; orregati bada, edozeiñ ikasilarik, baña batez ere bere Lagundikoak, ez dute erraz zeñegan begiak egotzi obeagorik billatuko, gogoz ikasten irauteko, ta era berean birtutezko bidean zuzen oiñ-giro onarekin aurreratzeke.

Nundik jaio zitzaion ordea alako zelo sutuba? Lagun-urkoaganako karidade gartuagandik, zeña anbat beroagoa, ta anbat eragilleago ta goialdunagoa



zedukan, zenbat eta suta-gar egiñagoa zegoan bere barrunbea Jaungoikoaren amorean.

Bitoreak eta guztizkoak izandu ziran alegiya bizitu zan erri ta uri danetan egin zituben karidadezko obrak, eta arritzekoak, batez ere Pariskoan, angoan ikusi bezela, ainbeste gazte ta beste iya eziñ mugi ta ondutzekoak ziradenak etsai inpernukoaren atzaparretatik aterarik.

Berak ziona zan eze, ala bearrean, anima baten salbatzeagatik pozik ibilliko zala kalez-kale ta plazaz-plaza oiñutsean arabakia zeriola ta lumaz janziya, mundu guziak irri ta parre egin zegion.

Norbaiti kaltez ordaintzerik, egundaño etzitzaion gogoratu, ezpada oso kontrara, bada bere etsai ta kontresta ziranai beti-beti barkatu, ta al-zien on guzia ere egin izan zien.

Sustrai beretik sortutako esker-ontasunarekin gogoan, biotzean, eta eranzunbide leialean auki ta gorde izandu zuben berari egindako edizeiñ mesede, ta ongilleaganako naitasun ederra; eta beragatik, bere bizi guztiyan, zana, zala iñorekin auzi-kontu, iskanbilla edo desgustoren bat erabilltzetik igas egin zuen.

Orregatik bada, zez da zer miretsi ez arrotzakiñ eta bere etsairik amorratuenakin ere aiñ maitetsua, biguñ, malso, lano ta eramanduna zanak, maitatzea oraiñdik geiago bere seme kutun ondoko eta urrutikoak; eta erlijiosoak ziranez al zuen ta zezaiekean ontarte ta atsegiñ guzia berai emateko ta eratutzeko aiñ kontuz ta arretaz ibiltea; eta eziñ geiagoraño zar, aguretu, gaixoti, eta eriyai morroitu ta lagundutzen jardutia, ta beren tristura ta tentamendiak ariñ-ariñ desegiten saiatzea; eta beretakoen baten kontrako gaizkiesanak eta salakerarik edozer aiñ zaill eta nekez sinistatzea, eta aiñ biotzetik onginei ta oparotasun betean beren erru, kontuez, eta utsegiteak barkatzea, eta are ernaitasunik andienarekin bertute-mueta danetan guziei aurrerazitzea; eta au guziak beti aiñ muitatsu gozoro ta aitakiro danakiñ da bakoitzarekiñ ziarduela ta zebilela, eze bakoitzak uste zuen bera guzietan naiena ta maiteena zubela eta ala seme maite edozeñek bere aita laztanari baño askoz samurrago eta biotzagotik nai zioten guzti guztiyak.

Ona emen Lagunkidako agintari edu buru diradenen begiragai osotua, ta eziñ-obeia, zeña San Franzisko Xabierek bere gutun edo eskuzkribu batean zion eran, «ez da besterik ezpada amorezko ta alkarnaiko

lagundia baizik, nundik laztasun eta morroi-bildur dana-guztiya oso urruti egiten dan».

Au guztia eta gero esatekoa, klaru ta argi-asko agiriko litzake, baldiñ laburkida batean eziñ sartu leiz-kean egite ta gertakizunak bat banaka lumaz itzkribatu bear baginduzke. Irakurtzekoak dira ala ere bizitza luzeagoetan guk emen batzuek laburtxo ukitu ta esanak utziyagatik.

Bere beste bertuteen artean esan genzakeana da alegia, umiltasuna zala beregan buruba geiena gooratu zuena, eta A. Ribadeneirak oi duen esku-giro onarekin eskribitzen duan bezela «Jainko gure Jauna serbitzen abiatu zanetik, berarekin atseginkiro Ignazio laztandu zan, birtute guztien ama ta zimendu-arriyarekin bezela, arabakia zeriola ta erdi-eranzia ibillirik, eta pobretegietan pobrerik beartsuenaren eran, baztertuta, purrustatua ta utziya; eta iñork ezagutu edo estimatzerik nai etzuela, eta noizbait Jesukristo gure Erredimitzalle Jaunaren amorez desonratuba ta jazarrituba bazan, pozik zeraman dana, bere bizitza guztian ondo agiri dan gisan, eta modu berekoa orobat bere erakutsibidea izandu zan».

Erakasten zuen bada, goi-goira igo nai zutenak, berbeetik eta azpi-azpitik eraso ta ekin bear zutela,

eta orra beretako guztiyai ematen zion irakasdea edo esangunza; batez ere animen onerako lanera bidaltzen zituanean, nola ere bialdu zituen Franzisko Xabier da Simon Errodriguez Portugal eta Juliara, Salmeron da Pascasio Irlandako ugartera, eta Salmeron hura bera ta Lainez Trentoko Eliz-Batzarrera, Alemaniako apostolu Pedro Ganisio Doatua ipar-aldeko baztarretara, eta A. Antonio Araoz eta beste gizaseme argidotarrak Portugalera ta Gaztelara.

Ama ere, eta ama maitea deitzen zion orobat umiltasunaren aizpa dan pobretasun edo beartasun santari; eta beartsua bizitu zan, eta bere semeak ere pobreak izan zitezela nai izandu zuben.

Arrotasunaren tantañia eta pensamenturik ere ez sentitzeraño allegatu zan ill baño askoz leenago; eta bazion eze, griña guzien artean antuste edo soberbiyari ziola bildurrik gitxiena. Ainbeste, umiltasunaren sustrai bearra dan, bere buruaren ezagueran barruratu ta ondoratu zuan.

Txit gutxi, eta orduan garairik premiatuenean bere buruaren gañean itz egin zuan, eta orobat bere eskuz aldatutako landare gizen iori ark ematen zituela ikusten zituen prutu ugarien gañean; eta zer edo zer esa-

tea zuanean, Jaungoikoari bakarrik gloria emateko zan.

Etxeko lagun guztiak bere burua umillatzeko baidarik serbitzen etziotela esaten zuen, guzrien artean eze-rezema bera ikusirik.

Ill ondorean nai zuena zan, bere gorputza anabasa zikiñezko kostal zar bat bezela kanpora botatzea zakur pizti eta egaztiyak zokoren batean jan zezaten.

Etzuen ordean ezertan obeto bere umiltasun piñ-piña azaldu, nola ez-artu nai izatean iñola, eta gero utzi naiyeen oso, Lagundi guziko buru izatearen kargua, bere burua txit ezerezean eta artarako egundo izango ez zanetzat zeukalako; izanik alabañan A. Ribadeneira berak adierazten duen eran, bera ezagutu zutenentzat miragarriena gai onetan, jakiñik ere nola ondo-eraentzeko bear diran doai guziak Jaunak eman ziozkan, eta ainbesterañoko mallan, eze atsegiñ legozke eta ontzat guztiz, buru edo gidari besterentzat diradenak, baldiñ aren artarako egokitasunak, aiñbesterañokoan osotua izateko ark zeuzkanak, erdika balituzkete ere.

Beste birtute argi batean begiratuko zuen anbat irakurleak, zeña ez dirudi aiñ ederki umiltasunarekin alkartzen dala; eta izandu zan arako biotz-onditasun

ezagun ta goiyeneko hura; zeñagatik galaikiro batek esan ere zuben, mundua baño are galantagoa zala. Baña ordea, nola ez diraden kontrestak eta alkarren kontrakoak ta arerioak ezpada guztiz alkar-zaleak eta aizpatiyak, Gipuzkoatar guztizko onegan bildu eta batu ziran, edozeñ Jainkoaren serbitzuko ekiñ-aldi danik gogorrena ere pensatu, ekiñ, aurrerazi, eta bere buru-erpiñ eta osotasunera eramateko, umiltasunik ondotsuenekoa, gutxitan gizartean agertu izan diraden biotztasun, kemenkizun eta ausardi santu batekin. Egiya da izan ere, biak adiskideki laztantzen diradela, zerren bata gere beeratasun, bear eta ezerezean, eta bestea Jainkoaren esku eta laguntzan zimendatzen diran; edo orobat lenengoa bakoitza bere buruaren uste-ezean, eta bigarrena berriz Jainkoaganako uste betean; bi gauza, santutasunezko bidean alkarrekin beti dabiltzanak.

Oraiñañokoan ikusi ditugu egitaldi batzuek txit arrigarriak ala ere, eta oraiñdik aurrerakoan Jaunaren mesedez geiago ere ikusteko gaude. Gure santu umill eta biotz-aundiko onen bizitza izandu zan bada, birtute bi oien jarduntza betikoa eta guztizkoa, eta beste bertute sendo eta osotuena orobat; naiz Barcelonan, Alcalan da Salamancan, naiz Venecian eta Erroman.

**OSAGARRIA**  
**San Ignazioren jaiotzaleku,**  
**eskribu,**  
**eta Euskeraren gañean**  
**zerbait**

# San Ignazioren jaiotza-lekuaren gañean

Liburu onen lenengo Partearen aurrenengo burua emen osatu bearrean arkitzen gerade, geroz jakin degun ezkerro garbi, zeñ *Etxe-santuko* toki ta lekutan Fundatzalle Santua jaio zan.

Eta alegiya: berarekin maitakiro tratatu eta bere bizitza lendabizi izkribitu zuen A. Pedro de Ribadeneirak badio eze, etxean leenengo sartuta, jaiotza-lekuari bezela, *San Franzisko Borjak jaierez muñ-eman zion gelan* jaio zala. Ori bera dudaren izpirik gabe aitortzen du, bere bizitza orobat eskribitu zuen Cienfuegos Kardenalak ere, esanaz *Borja Santuak lenengo meza eman zuen lekua, San Ignaziok bere jaiotzarekin donekidatu zuena bera zala, eta geroztik* (gaur dagoan eran) *errugutegi edo kapilla biurturik arkitzen dala.*

Orobat edo obeto A. Franzisko Garciak santuaren bizitzan, S. Franzisko Borjaren gañean diarduela.

Au alabaña, erdiko zoru edo bizitzan dauden iruretatik, ezkertera goazela, azkenengoa, eta Ama Birjiña Doloretakoaren izenekoa da.



Ala bada, (norbaitzuek siniskizun onarekin, baña arrazoibide gutxirekin esan izan duten bezala), ez goiko bizitzan ta ez beeko tresabean jaio zan.

# Liburutxo onen eta besteen Euskeraren gañean zerbait

Euskeraren gañean ere zerbait esan, edo erakastetxo bat gai onetan emen zenbaitentzat ezarritzea, premiazko gauza ta jakinbide ederra-txit izango dala uste izan degu.

Liburutxo onen Euskera Euskal-erriaren erdi-erdi-koa da, inguru guzietan obeto enzuna eta aitua izan dediñ; bada Euskara osoa bat bera izan arren, gorputz aundi eder bat bezela, iru edo lau izketa-modu edo dialekto daduzka, Griegoari eta beste izkunde ospatsueneko askori gertatzen zaion bezela, eta ala, tallurudi eder bati alboetatik begiratzen zaion eran, beste bat dirudi *Sortaldeko* Euskal-erriaren erranak eta mintzatzeak, beste bat *Sartaldekoaren* berba-egiteak eta esateak, eta beste bat *Egoaldeko* edo Euskal-dierriaren biyotzeko itz-egiteak, esanak, erausiak, eta itzpi-deak. Lau bat milla urtean Pirineo edo Subola-mendi inguru ta Kantauri-mendietan sustraitua dagoan Euskara galaiaren arbolak oiek ditu bere iru besanga eta tantai galantak bezela, eta oietaratu leizke eroso ta

zuzen, erri danetako esaerak, arbola, edo zuaitz bera-  
ren adar-inguru, arbasta, txotx eta kimuaren modura.

Euskeraren eta Euskaldunen gañean aditua irten  
eta zerbait jakiunde beretu nai duenak, eta ez nola nai  
ta abuntun gai oien gañean itzegiñ da jardun, irakurri  
bitza arretaz eskuaraz itz-egin eta eskribatzeaz gañe-  
ra, letraz ezarririk utzi digutena liburu galant ederretan,  
anziñakoen eta fuero Liburuen urrena, A. Gabriel  
Henao, A.J. Cortes-Osorio, L. Herbas, Maedeu, G. de  
Humboldt, F.L. Lécuse, L. Bonapartek, eta euskale-  
rrietako Juan Bautista Poza, Etxabe, Sandoval, Gari-  
bai, A.J. Moret, A.P. Abarka, J. Etxeberri, Salazar, Men-  
doza, Oihenart, Darrigol, Larramendi, Ozaeta, Mogel  
(irurak), Erro, Astarloa, M. Zabala, Zuaznabar, Novia  
de Salzedo, Zamakola, Hiribarren, Isasti, Iturriza,  
Iztueta eta beste onelakoak.

Izkera onen letrakinde edo gramatika gauzetan  
orobat adituenak ditugu A. Larramendi, A. Kardabe-  
raz, Astarloa, L. Astigarraga, M. Harriet, M. Hiriart, Frai  
Mateo Zabala, Francisco Ignazio Lardizabal, M. l'abb-  
ñe Darrigol, Duvoisin, M. d'Abbadie, A. Chaho, M.  
Geze, eta oien denborako ta ondorengo beste  
batzuek. Euskerazko *abezearen* gañean, azpian erde-  
raz dagon oarra irakur bider.

Orañ bada, Eskuara *Sortaldekoan*, zeñean, Franciako Lapurdi edo Lau-urdi, Zuberoa, Subola eta Naparroa-beekoa dana batzen dan, iztun autuenak eta eskribalaririk bikañ da bitoreenak izandu dirade Joanes de Lizarraga, Joanes de Etxeberri, B. Gasteluzar, Axular, E. Materre, Baratzart, P. Argainaratz, Larregi, Xurio, Haraneder, Hiribarren, Goienetxe, Larregi, Duvoisin, Intxauspe, eta «Gomunta edo meditazio-neak gei premiatsuen gaiñean» eskribatu zituen elizgizona.

Euskara *Sartaldekoan*, zeñean Deba-ibaitik Bizkaiaren atzenerañoko errienak eta zenbait Arabakoarenak ere sartzen diran, berba egin dute itzpidetia erausi ederrian beren liburuetan Kapanaga, A. Agustin Bazterretxea, A. Kardaberaz, J.A. Mogel, Juan Jose Mogel, Bizenta Ant. Mogel, Pr. Pedro Atarloa, Pr. Bartolome de Santa Teresa, Pr. Pedro A. Añibarro, D. Bartolome de Olaetxea, Pr. Jose Antonio de Uriarte, Eusebio M. de Azkue, eta bat edo beste gejjagok.

Baita ere Euskera *erdikoan* edo *Egoaldekoan*, nungoa Gipuzkoan Naparroa-goikoan ta Araba-partetia batean itz-egiten dan, eskribitu dute itz-giro gozo, garbi, leun, eder, berdiñean A. M. Larramendi, A. Ag. Kardaberaz, A. Seb. Mendiburu, Juan A. Mogel, Pr. Juan

A. Abillos, D.B.A. Mogel, D. Juan B. Agirre, D. Luis Astigarraga, Ag. Iturriaga, J. Ign. Iztueta, Pr. J.M. de Larroka, Fco. Ign. de Lardizabal, Pr. J. Ant. de Uriarte, Gr. de Arrue, M.A. Antia, D. T. Elizalde, J.M. Eguren, eta besteren-batzuek.

Oietan ondo ta gogoz gau ta egun beta danean irakurri ta ikasi ezkeru, danak ederki Euskeraz egiñ dezakete; baña batez ere animen kargudunak bear dan kontu, arreta ta diñatasunarekin Jainkoaren itza garbi euskaldunen biotzetan ezarri. Sentigarria da egiaz, bestetik gizon adituak diraden zenbaitzuek, Euskeraz itzegitera bearturik, gaztelania edo franzesarekin naaspilla bat eginda, jardutea. Au da alabañan, zenbait eguneroko paperetan agiri dana, gaztelania franzes-esaerakin naasturik, Cerbantes, Leon, Granada, Ribadeneira eta Santa Teresaren izkunde galai eroso zaintsua abarrakitu ta ondatzen bezela, beste orrenbeste gure izkuntzarekin egitea.

Ez degu esan nai orregatik zenbait itz latiñetik edo erderatik artuta euskaratu ez leizkeala egoki ta eroso noiz edo noiz, batez ere Sakramentuen eta beste eliza-gauzen, auzi-kontuen eta jakiunde, ta arteetako izenak edo oien antzekoak aipatu bear diradenean; bai ordea baimen orregaz alik gutxiena baliatzen saia-

tu bear geradela, euskeraz ondo ta bear dan eran geron erausiak eta itzaldiak ixuri nai eta gura baditugu. Baña onetan aitu ditzagun laburkiro, zeñ eroso saso ta giro-giro ai zaizkigun euskal-erriaren onra ta edergarri izandu ziraden bi: Aita Prai Bartolome Santa Teresa Markinako Karmendarra, eta San Franziskueta-ko Aita Frai Juan Antonio Ubilloskoa zana. Lenengoak bere eskribuen gañean irakurleari itz edo berba-egiñaz, onela dio: «Esan batzuk imiñi ditut gogo bagarik, geure Euskerako berbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarira, geure erruz, erbestetik etorrijak. Euskeria berez aberatsa da, bagenki ondo. Geuk Eleixa-gizonok berba askotan naastau, ta ezaindu degu Euskeria. Geuri entzunda, dakijeez baserrijetakuak *Jaungoiko Omnipotentia, Poderosua... Birjiña Klementisimia... Miserikordijosia... Mandamentubak... Absolbiziñoia... Doloria... Errestituziñoia...* ta beste onako berba euskalgaixtoko asko. Erdera ez dakijeen euskaldunak eureen etxetan, ta artu emonetan biar dabeen guztia, esaten dabee euskera garbijan. Kristiñautzako ikasijan dira euskaldun gaixtoak. Ez da au euskeriaren erruba, ezpada geuria. Oituko bagiña geu Eleixa-gizonok Larramendi, Cardaberaz, Mendiburu, Moguel, ta beste Euskaldun garbijak irakurtera, ta areen erara

geure siniskizunak, ta eginkizunak berbeta garbijan pulpitudan, ta ostian kristiñaubai erakustera, ariñ erbestetuko litzatekez, geure euskera maitia, ta aberatsa zaindu, ta lotsatuten daben urrin-errietako berba banakaak. Astarloa-bat, Erbas-bat, Erro-bat, ta beste jakitun asko jagi ez balira, geure euskera jausija irakoitera, uste dot, geuk galduko geuntzala laster bere ontasun, ta edertasun guztia...

»Egija da, Jesu Kristo geure Jaunagan sinistutia, ta ari darraikon guztia dala, dan legez, txito barrija euskeriagazko; geure kristinautzako gauza barri askoren izenak bere barrijak dira; ta areetati ez gutxi kristandadiagaz beragaz Urrin-errijeetati etorrijak. Onetariko ija izen artubak, *Bautismua... Konpirmazinoia... Penitentzija...* geure Euskera garbira aldatutia, ondo litzaatekian edo ez, jakitunak esango dabee. Ez da ariñ biar gatxa, euskera garbiko izeneetan imintia».

Besteak txukunago dio oraindik bere liburuaren itzaurrean, era onetan «Izkuntz bakoitzak ditu itzegiteko, berezko ta bere etxeko itzak; gure euskerak beintzat bai; onez osterontzeko geienak latíñ itzkuntzarenak dituala, ta oez gañerakoak, nork daki nongoak, ta norenak. Berezko itz oek eskribitzean ta esatean, ezarri bear dira, bakoitzari dagokan tokian. Eus-

keraz darauskizunean, euskerazko itzak ez badara-bil-tzatzu, zure erausia *itzunea* edo *barbarismoa* dala esango dizue; ta itz bakoitza, dagokan tokian sartzen ezpadezu, zure itz-jarioari *araututza* edo *solezismoa* deituko dioe. Bost onelako entzuten degu Euskerazko sermoietan! Alabaña, zori gaixtoan dakusgun bezela, euskaldun gutxik nekatu nai du euskerazko itzak billa-tzen eta bakoitza bere tokian ipintzen. Euskerazko itzai ongi ezpadirudi, edo oitua ezpada, hura utzi; aren ordean artu diteke, ark esan nai duan adierazteko adiña dan beste bat. Adizazu oraiñ, gizon andi jakintsu batek egiteko-onen gañean diona. (Gizon au da Prai Lorenzo Villavicenciokoa)».

Euskera itzegitea, aurreratzea, galaitzea, apain-tzea, gordetzea, eta loretu-azitzea, egoki, protxuzkoa ta onragarria da guztiz kanpoko jakintsuentzat, eta euskaldun danentzat are geiago. Izkundezaleak edo linguistikara emanak asko aurrerako lirake onekin Europako izkuntzen ezaguera osorako, eta besteerako ere bai; anziñako lurkiundera edo geografiara eta zar-gauzetara jarriak argia pranko orobat izango lukete beren jakingaietan zuzenago jarduteko; kondairatza-llak ez gutxi, eta batez ere gaztelaniaren eta frances-



izketaren sustrai guziak billatzen; barruntatzen, aztar-tzen eta ezagutzen diarduten itz-jakindunak.

Oiei, arretaratu nai baziraden, milla arrazoi eta erakai eder aurkeztu ziezten A. Larramendik, eta guziaz gaiñ Akademitar edo ikasola gaztelaniakoai, zeñakin itzetorkien edo etimologiengaiñan itz-egiten ari dala, berakgatik liburu batean esaten du onela.

Euskaldunok gerok gerade ordea geiena euskara-ren alde eta onerako egin bear gendukeanak. Euska-lerriak beti illezkorra bere zorionean iraun dezan zimendutzat edo *iru arroka bizi* ta pillare gogor beze-la daduzkanak dirade, *prestutasun kristauzkoa* kris-tauai dagozten oitura ederrakin, bere eraen-modu ta *bizilege berekiak*, eta *bere* izkera eder millaka urte-koa; Ikusi era berean pag, 88 eta bere iztegiaren aurrean ugari diona. Eta iru gauza oien kontra ai dira ta aiko ere Euskalerra doakabetu, gaixtotu ta onda-mendi izugarrian amildu-azitzeko aztalka-bizian dabil-tzan eta diarduten etsai, arerio, eta naaspillazaleak. Beragatik gogor egin bear zaie; eta kontuz ibilli. Eta orra arrazoi portizenekoa-or euskera gordetzeko, eskudatzeko eta goitutzeko. Ederki eskribatu zuen onetan ere euskaldunen eta euskerazaleen Aitalen

otsandiko Larramendik A. Mendibururi bialdu zion karta baten, diolarik. «Euskaldunak Euskera .

Eta A. Agustin Cardaberazek, zenbat gauza eder da egoki esan zizkigun euskeraren alde? Bere liburu-txo «Euskeraren berri onak» deritzaiona irakurtzea baizik ez degu zearo au ikusteko. Aiñ gizon santua izan arren, begira zeñ zorrotz ai dan leku batean egi galantak esanik: «Obra obeagorik errientzat ezin, ala fede, umeak ondo azitzea baño, egin dezakee. Argatik, maisu ta guraso umeai erakutsi bear dienak, ori ondo egiteko erreglak bearrago dituzte. Seme ta alabak txikitatik eskolan erdaraz ta euskaraz, edo guztitara, oitu bear dira, ta arrazoi gabeko lotsa beltz gaiztoa pisatu ta kentzera. Bestela, zer lotsa gaizto itsusiagorik, euskaldun galtzadun edo gizon egin bat, lau errengloi euskeraz ezin irakurririk, ez atzera ta ez aurrera, lotu-ta ikustea baño? Ta ori guzia, zergatik? Aiñ asia ta erraz lau egunean libru bat irakurtzen ez ekin edo jarduteagatik. Lau eguneko ejerzizio piska batekin seguru, erdaraz bezala edo aisago, euskeraz irakurtzera egingo zera: egin ta irakurri, ta nekerik ta lotsarik eztago...

»Emen guraso ta maisuak falta andi bat erremediatu bear dute, ta gure euskerari orañdaño baño

mesede geiago egiñ: jendeen artean beste lengua-  
jirik euskera baño ditxa gabeagorik ezta ikusi, ta, gure  
jatorrizko edo jaiotzako izkera ez balitz bezala, ta eus-  
karaz itzegitea pekaturik aundiena balitz bezala, giza  
artetik kendu ta lurpean ondatu nai dute, ta eskoletan  
sortija edo siñaleakin, azote ta kastiguakin, eragotzi  
nai dute: Zer erakeria itsuagorik au baño? Euskaldun  
prestuak, ez arren orrelako ofensarik zuen lenengo ta  
beti bear dezuten euskerari egin. Zuen juizioa non da?  
Euskalerrietan nola gauza onik izango da?... ..Ikusten  
deguna da: gazteak latin gramatika ikasten dutenean,  
naiz Gaztelaniaz, naiz Frantzesez, naiz Euskeraz itze-  
giten dute, ta ori eragozten ez diete. Gramatikako  
maisu famatu bat gure egunean izan zan, latin gauzak  
ere euskaraz erakusten zituena: ta franzes euskaldu-  
nai gramatikako erreglak euskaraz adirazi ta erakus-  
ten diezkate. Ala, ez eskolan ta ez gramatikan, euska-  
ra beñere utzi bear ezta. Soldadu jaun onek arrazoi  
andia zeukan. Al datekean disparaterik bidegabeena  
da, euskera gazteai debekatu ta, madarikatua balego  
bezala, kastigatu ta eragozte. Eskolan bertan eraka-  
tsi ordu onean, ta erdaraz jardun dezatela; baña gero  
libre, naiz euskeraz naiz gaztelaniaz: orrekin bietara  
egingo dira... Bedeika nik dakidan maestra estimaga-

rri errespeto andiko bat, bere grazia onarekin ta kas-  
tigu gabe ume inozente sei urtekoai ere, euskeraz,  
erdaraz ta latinez berdin, txit trebetasun andiaz ta  
ederki lotsarik gabe irakurten erakasten diena. Ojala  
ori bera maisu guziak egiten balute: mutil mutu lotu  
motel gutxiago errietan izango litzake. Baña utsegi-  
tean, oiei sosgeuz ta grazia onean, nola ondo irakurri  
edo esan bear duten, adirazi bear zaie, eta ez bildur ta  
ikarakin. Oitu bear dira, ez emengo izkeran bakarrik,  
ezpada edozeñ dialektotan, eta Frantzia edo Nafarro-  
ako edo Bizkaiko libruetan ondo ta trebe irakurtera.  
Onetarako diran erreglak ondo gordetzen badira, edo-  
zeñ euskera txitez beraa, suabe eta gozoa ertengo da:  
eta deadar, izu ta golpe gabe, ezpada onez, egun  
gutxian ondo esanzan, ederki ta nai bezala, irakurtera  
gure txikiak eta andiak egingo dira... Miragarrizkoa da  
nola euskera, soll-soll, bakarrik edo nik eztakit nola,  
bizirik ainbeste sekuletan egon dan ta dagoen: añ  
berez ta beregan, añ argi ta garbi, bere erio ta arerio  
guzien damu gorri gaixtoan badere. Alere asko, egie-  
ki, euskera galdu da. Baña ori ezta euskararen, ezpa-  
da euskaldunen desonra: bada oiek politikitu, apañdu  
eta edertu bearrean, lotsari gabe berak beren nagita-  
sunez itxustu, larrutu ta desegin izan dute...

»Baña, gure probetxo on askoren animak salbatzeko, euskarak burua jasotzea Jainkoak nai du: gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, euskarak iraungo du. Esan oi dana: oiei lepoa ebaki edo bizia kendu gabe, euskara ezin utzi edo kendu diteke. Jaungoikoaren borondate jakiña da, aren fede ta legeko misterio ezkutatu ta dotrina sabaltzeko bear dana, sazerdote jaunen ministerio sagraduetan, euskeraz baizik emen egin ta esan bear ez dala». Oneraño A. Cardaberazek.

Denbora da beraz Euskaldunak ere beren izkunde galai baliozkoena bere apaindura destiatzalleakin beste izkunzarik sonatuenen artean aurkestu ta azaldutzeko. Au errezago da oraiñ eta emendik aurrera egiñ eta egingo diraden liburu asko ederren bidez. Oiek baidira alabañan, zion miriku edo sendagille Sarako irakasle J. D. Etxeberrik (izkunzaen eta euskerarekiko ta gomendiozko karta edo gutun batean) «kutzak eta arkak, ceñetan itz eta solas ederki eta ongi erranak eta pentsatuak, galdu.gaba baitaiude altxaturik begiratuak, eta goardatuak; eta ala, manera hunetan ikasten da ongi, eta ederki mintzatzen, eta bide beraz hitzkuntzak ere dehazi beti aitziñatuz, hobeagotuz eta edertuz». Oraiñ bada, Euskerak iraun

da aurreratzeak, ez du eragozten ezer gubernutar ta aginte-gauza guziak izkuntza ofizialean edo erresuma osokoan tratatzea, dala Gaztelania dala Franzesa; eta kanpokoak datozenean beti dute euskalerrietan norekin itzegiñ ere. Ezagutu ta maita dezagun gauza bakoitza bear dan eran, legez eta bidez. Euskera ezer gutxi edo deusez maitatzea, bera dan aña eta bezela ez ezagutzetik dator; zerren *ignoti nulla cupido*: eza-guera-gabe ez da maitatze onik, bada ezaguera da borondateari argi egiten diona, maitagarri dana neurritz laztandu dezan. Itxumendi ta jakiñeza aldendu ta aiena bitez ere euskerarekiko, eta bestera gertatuko da. Au ederki ta klaru dakusgu Larramendi, Mendiburu, Astarloa, Erro, ta beste euskeralari ta ikasizale argienekoetan.

Ah zeñ egoki litzakean Franzesaren Gaztelaniaren eta beste izkeraren gisan Euskarak bere itz-lagunkida edo dala akademia edo ikasola idukitzea, juan dan eunkidako Lagunkida Erreal Euskaldunaren asmoak parteka beintzat betetzeko eta beste gauza on asko aurreratzeko; bildurik ortarako zar da gazte letradun argienak Euskalerriko uri buruetan! Batez ere on andia litzake Baionan, Iruñen eta Vitorian apaizgaiak ordendu baño leen, Hebreo, Griego, ta beste onelako

izkondeak ikastera, astean bat bi edo iru aldiz bezela, ala euskaldunak beren izkuntzan trebetzeko, alkar billatu ta irakastea. Beren errietara joatean, lagunza ta atsegiñ andia litzake erritarrentzat, eta erosoago aixa legozke beren izketa ta itzaldi ederrakin animen onean lan egiteko.

Jaungoiko gure Jaunari nai degiola gauza oek guziak zuzendu ta eraentzea *bere gloriarik goi eta andienerako* eta gizonen salbamendurako. Ala gerta dedilla.

# **SAN IGNAZIOREN KANTAERA TA MARTXA ZENBAITZUEK**

## **SAN IGNAZIOREN ZERURATZEARI** (Laukoak)

Izarrez-izar, euzkiz-eguzki,  
milla munduren artean  
aingeru-talde soñulariyak  
zabaltzen dira batean.

Zillar zurizko, ta urre gorrizko  
distiadura ixuririk,  
soñeko ederrak daramazkite  
aizeak apaiñ jarririk.

Dijoaz egan pozez gañezka  
astiñdurikan egalak,  
murgildurikan beren biyotzak  
betiko atsegiñ-ujolak.



Oien erditik gure Ignazio  
bere jargoira zanean,  
bazter danetan pesta geitu zan  
zerutar galai artean.

Bere garaipen paregabea  
kantatzeari benetan  
ekiñ zioten, danak urturik  
Jainkozko amore garretan.

Nun dira lurrak? Nun dago Erroma?  
Nun andizki goi erpiñak?  
Uts-ezerezak dira Zeruan  
mundu guziko atsegiñak.

# **LOIOLAKO A.S. IGNAZIO KANTAUARREN BITARTEKOA**

## **KANTAERA**

**(Iru berso-modu ta bi kantalditan)**

# 1.

Kantauritarren gordetza dezun  
Zeruko Aingeru galaia!  
Eman idazu zeruko izkuntza,  
Leundurik mingañ alaia:  
Eldu da noizbait Ignaziori  
Kantatutzeko garaia.

Zatozkit ariñ zeru urdiñetik,  
urraturikan izarrak;  
zure ega zillar-urrezkoetan  
artuko ditut indarrak;  
zurekin naitut girabiratu  
mundu guziko baztarrak...

Onela erregu bero-beroan  
gora nengoan begira;  
baña bat-baten menpetu nintzan  
lo gozo baten eztira;  
ta aldatu nintzan, (ez dakit nola)  
aingeru-biren erdira...

Zeru-zaldunak agertzen dizkit

Erromako Uri parean  
Lur itxasoan lau alderdiyak;  
soñu gozoen antzean  
ixurtzen dizkit itz-aldi oek  
gure Iñigoren gañean.

«Jainko gure Jaunaren gloriatzallea  
Loiolako Ignazio da paregabea;  
Or Erroman gorputza, anima an Zeruban  
bere izen da egiñak an ta emen munduban  
dirade otsandikoak... Onari Jainkoak  
beti dizka ondasun neurritz gañezkoak.

Iñigok diyo beti «*Jaunari Gloria*»  
Aren Glori-andirako dauka Lagundia,  
Zeña Jesus duela buru, ai da aurrena  
Munduz-mundu zabaltzen *Jesusen izena*.  
...Ordutik gerra dabill munduban gogorra,  
Jaiki zalako kontra deabru galdukorra:  
Infernu ta gaiztoak Zeru ta Elizari  
Kontra ai dira irten naiez noizbait garailari  
Kantauritar-erriya, ez izan bildurrik,  
Loiolako Inaziori menaz jarraiturik:  
Au dezu zeruetan Bitarteko artuba;  
Segiturik berari zera salbatuba».

Itz-azken oiek esan orduko  
Odei argizko leunetan  
Irristaturik argitu giñan  
Urola-inguru ederretan.

Emen berriro zabaldurikan  
Arrosazko ezpaiñ gorriyak  
Eraso zidan esan-oiekin  
Zoraturikan mendiyak.

## 2.

«Loiolaren izena darabilte aizeak  
Darabilte gizonak, darabilte humeak;  
Bedeinkatzen da izen au usai gozo artean  
Ebro, Nilo, ta Ganges, ta Amazona aldean.

Kantabriako mendi tontor altubetan  
Arkaitz tartean eta Ibar-zelaietan  
Lorerik ederrena nola oi dan atara  
Aldatutzeko Errege loretegieta,  
Ala beregandurik Iñigo Zalduna

Loiolatik Jainkoak, egin du ezaguna.

Andiya bada Iñigo-Iruña gordetzen,  
Guztien gañekoa da Jauna serbitzen...  
Orri begira beti, Euskaldun prestubak,  
Zeron erri gordetzen, ta izaten santubak.

Inaziori jarrairik goitu diradenak  
Dituzute inguruan gizon argienak:  
Araba, Naparroa, Gipuz ta Bizkaiak  
Argidotar semetan dirade emankoiak.

Araba zabalean Aiala ta Olabe,  
Galín, Vela, Guevara, ta eun geiago daude.  
Javier Naparroan, Uriz ta Azpilcueta...  
Baña, milla izenentzat nundik degu beta?

Bakarrik alde onetan Bizkaira begira,  
Itxasozko azañetan or agiri dira  
Machin Mungui, Arbolancha, Bilbao-tar ona,  
Errekalde, Arteita, Mello Bertondona...

Iñigori jarrairik santutasunean,  
Azaltzen dira Landa ta Uriola batean:

Zumarraga ta Arauna, Isunza Jauregi,  
Berrio-Ochoa eta Menda Gisategi.

Gipuzkoa txikiyan gizon andienak,  
ez dira diralako Loiolaen urrenak?...  
Elkano, Andia, Legazpi, Oquendo, Larrea,  
Urbietta, ta Idiaquez, Churruca jendea,  
Beste millaka utzirik, lur ta itxasoetan  
Ospatsu izan dirade milla baztarretan.

Santu izaten Japonen San Martin, eta Ingren  
Lizardi Asteasukoa, Antxieta Brasillen,  
Errezilgo Herkizia, ta Oiarzungo Isasa,  
Araoz, Cardaberaz, ta Aita Berreiarza...

Baña, kopuratzea da errezago izarrak  
Kanpoko bedar eta itxasoko ondarrak,  
gizadi argiya baño Kantabriarena,  
Zeñen guzien artean da Ignazio goiena,  
Nola odeien gañera kopeta altxaturik,  
Loiola Elizak dauzkan etxeak beturik.  
Edo Euskaldun-erraldoi Joaquin Alzokoak  
Nola gaintzen zituen jende Lapongoak.  
Jarraiyozte beti, Euskaldunak, orri;

Bere antzera bizirik, Zeruraño korri;  
Berari erregu bero, ta aldare berriyak,  
Berekiñ gozatzeko Zeru-jauregiyak».

Lilluraturik arkitzen nintzan  
aiñ gauza andiak aditzen,  
Baña, ara nola zeru-zaldunak  
asitzen diran egatzen,  
Farra gozoan, esanaz, «agur»,  
Zeruronz zaizkit goratzen.

Euzki bi egiñik izar-artetik  
Dijoaz, botaz lurrera  
Argi-itxaso bat; ta iduritu zait  
Ni ote-nijoan batera;  
Baña, naiz geldi mundu tristean,  
Juan gabe zeru ederrera!...

Arren, gizonak, egiñ alegiñ  
Igo dezagun zerura:  
Ara igotzeko, ta ez besterako  
Jaio giñaden mundura;  
Ill-arte gerra pekatubari:  
Guazen Santuen lekura.

(Ala biz)

# **SAN INAZIO LOIOLAKOAREN IBILL-NEURRIA EDO MARTXEA LENENGO PARTEA**

*(Batena)*

Ignazio, gure Patroi aundia,

*(Guziona)*

Jesusen Konpañia

Fundatu

Eta dezu armatu:

Ez da ez etsairik

Jarriko zatzunik

Iñolaz aurrean

Gaurko egunean;

Naiz betor Luzifer deabrua

Utzirik infernua.

*(Berriro, Ignazio etc.)*

Zure soldaduak

Dirade aingeruak,



Zure gidaria

Da Jesus aundia,  
Garaitu dituzte zure anaiak  
Etsaiak.

*(Birena)*

Ez dauka Fedeak  
Ez kristau nereak,  
Ez dauka bildurrik.

*(Guziona)*

Iñungo aldetik:  
Ignazio or dago,  
Beti ernai dago,  
Or dauka jendea  
Txit garaitzallea  
Bandera altxaturik  
Gerran azaldu nairik.

*(Birena)*

Gau eta egun  
Guztiok pakea dezagun

*(Guziona)*

Beti gau eta egun.

*(Berriro. Zure soldaduak etc.)*

# BIGARREN PARTEA

*(Batena)*

Ignazio, bildu dezu munduan,

*(Guziona)*

Arritzeko moduan

jendea

fedez biziz betea,

jende jakintsua

eta indartsua,

beti dabillena

gerretan aurrena,

elizaren etsaiak billatzen;

topatu ta garaitzen.

*(Berriro. Ignazio bildu etc.)*

Dituzu anaiak,

gerra egin-naiak,

da oien legea

etsai garaitzea,

oiek ditu bere gordetzalleak

fedek:

*(Birena)*

Dirade ezagun;

dabiltza gau ta egun

Europar, Asian,  
Afrikan, Amerikan:

*(Geiona)*

Legorrez ta itxasoz  
dijoaz ta datoz,  
dabiltza nekean  
Indio tartean,  
edo errege-etxean  
Jesusen izenean.

*(Birena)*

Beti pelean  
bizitzak dirauben artean.

*(Guziona)*

Beti beti pelean.

*(Berriro. Dituzu anaiak etc.)*

## **IRUGARREN PARTEA**

*(Batena)*

Ignazio, dira zure anaiak

*(Guziona)*

Itxas-gixon argiak  
arraunak

bogatzen dakitenak:

Pedroren ontzia

badago ertzia

arroka tartean

egunen batean,

bertatik botean dira sartzen

eta argana joaten;

*(Berriro. Ignazio dira etc.)*

Sokakin loturik

arroken artetik,

baldiñ bada etsairik

oiek garaiturik,

an daramate ontzia kaiera,

leorrera:

*(Birena)*

Naiz izan ekaitza

bogatzeko gaitza

eta bagen goiak

naiz busti odeiak,

*(Guziona)*

arraunak arturik,

alkar alaiturik,

botean sarturik,

bizitzaz azturik

boa boa deirik,  
an dijoaz kaietik

*(Birena)*

Bultzeaz killa,  
Pedroren ontziaren billa,

*(Guziona)*

beti bultzeaz killa.

*(Berriro. -Sokakin loturik, etc.)*

**D. Ag. Iturriaga apaizak**

# **SAN IGNAZIOREN MARTXA BERRIA**

*Jose Ignazio Aldalur Apaiz Jaunak soñuz ipiñia*

**KANTAURREA**

Loiolako Ignazio,  
Euskaldunen Aita!  
Ekiñ dragoi Luzbeli  
Bertatik despita.

-Zure garaimen-kantak  
gaurdandik-asita;  
Sionen aitu bitez  
zerua irikita.

### *KANTALDIAK*

Eliz Ama Santa,  
Danen argiya!  
Isildu negarrak  
agertu alaia,

-Janzi ezazu berriz  
apainduriya,  
koroiturik lorez  
zere iduriya.

Zeradela Erregiñ  
Edertasunez,  
Parre, zorion ta  
Galaitasunez.

-Goza-ezazu Jauna

deadar bigunez,  
goza-ezazu, ez iraun  
samiñtasunez.

## *AZKENA*

Bere naigabeakin  
biotzak suturik,  
Ignazio andiari  
guazen jarraiturik.

-Segi zaiogun menaz  
ezpatak arturik,  
egan bezela guazen,  
alkar alaiturik.